



Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan

**Hendaiako Herriko Etxearen
Hizkuntza Politika:
diagnostikoa, ekarpenak eta gomendioak**



AURKIBIDEA

SARRERA

3

1. HENDAIKO UDALAREN HIZKUNTZA POLITIKA: DIAGNOSTIKOA

6

2. HENDAIKO EUSKALGINTZAREN EKARPENAK

18

3. EUSKALGINTZAREN KONTSEILUAREN GOMENDIOAK HENDAIKO UDALEAN HIZKUNTZA POLITIKA GARATZEKO

24



IRUZKINAK

1. DIAGNOSTIKOAREN SINTESIA

32

2. AZTERKETA JURIDIKOA:

Hizkuntza Eskubideak

Bermatzeko Protokoloa: Garapena

Herriko Etxeetan dokumentuaren

eta frantses legediaren arteko

bateragarritasuna

ENERITZ ZABALETA, 2021

38

SARRERA

2020ko otsailaren 6an, Baionako Merkataritza Ganbaran, Euskalgintzaren Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak, herriko etxeetan hizkuntza-eskubideak bermatzeko aplikatu beharreko neurri-sorta aurkeztu zuten dokumentu batean: *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan*.

Proposamen hori, 2016an aurkeztutako beste proposamen osoago baten deklinazioa da: *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*, Europako kultur hiriburutzaren ekimenen baitan aurkeztu zena Donostian. Dokumentu horren osaketan, Europako 30 hizkuntza komunitate baino gehiagok parte hartu zuten, batzorde zientifiko baten aholkularitzarekin eta oihartzun handiko nazioarteko sei eragileren babespean. Honela, 120 eragile baino gehiagok hizkuntza-politikak bermatzeko 185 neurri biltzen dituen dokumentua adostu zuten.

Instituzio nagusiek egin beharreko politiketan jarri genuen azpimarra *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa* prestatzean. Halere, ariketa interesgarritzat jo genuen dokumentu horretan agertzen ziren neurriak tokiko administrazioetako betaurrekoekin irakurtzea. Hau da, tokiko erakundeek neurri horiek betetzeko zer egin behar zuten zehaztea.

Herriko etxea herritarren hurbilen dagoen erakundea da. Herritarrek hurbilen sentitzen dutena dela esango genuke, izan ere, egunerokotasunean herriko etxearekin harreman franko izaten dute herritarrek, bai eta herriko zerbitzu eta eskaintza andana jaso ere. Arrazoi horrengatik, herriko etxeak hizkuntzaren garapenerako estrategikoak dira. herriko etxeetatik garatu beharreko hizkuntza-politikek eremu publikoan euskara ahal bezainbat garatzea eta erabiltzea ekar dezake, herritarrari euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa azkartuz. Horrez gain, ez dezagun ahantz, herriko etxeak bezalako administrazioek herritar euskaldunek dituzten hizkuntza-eskubideak errespetatzen laguntzen dutela.

Hortik etorri zen, beraz, herriko etxeen eskumenei egokitutako proposamena prestatzea. Gainera, bi bertsio prestatu beharra aurreikusi genuen, kontuan hartuta Hego edo Ipar Euskal Herrian tokiko entitateek dituzten eskumenak edota euskarak berak duen estatusa desberdinak direla. Honela, beraz, *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* proposamenaren bidez, tokiko administrazioetan hizkuntza-politikak ezartzeko neurri xorta aurkeztu genuen Baionan.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan dokumentuak erraztasunak eman nahi dizkie herriko etxeetan gobernatzen duten hautetsiei hizkuntza-politika ausartak martxan jarri ditzaten eta haiek ere eredugarri bilaka daitezen arlo horretan.

Halere, paperak denari eusten dio, eta bertan jasotakoaren aplikagarritasuna neurtzeko Euskalgintzaren Kontseiluak esperientzia pilotuak abian jarri zituen 2021ean, Nafarroan, Uharten, Euskal Autonomia Erkidegoan, Arrigorriagan eta Ipar Euskal Herrian, Hendaian.

Egia da, bai, Hendaia kasuan, Nafarroako eremu batean bezala, euskara ez dela ofiziala eta horrek oztopo izaten segitzen duela. Halere, orain arte urrats interesgarriak eginak izan dira eta etorkizunean urrats are ausartagoak egiteko bideak urratzen ari direla erran dezakegu.

Esperientzia pilotua horren lekuko ere izan da. Hizkuntza-politikak garatzeko oinarri bat abiapuntu gisa hartu eta helmuga bilakaraziz, aitzina egiteko bidea marraztu dugu elkarrekin.

Horrenbestez, Euskalgintzaren Kontseiluak eta Hendaia Herriko Etxeak, elkarlanean, Hendaia Herriko Etxearen ondoko urteetarako hizkuntza-politika definitzeko oinarri bat eskaini nahi izan dute.

Dokumentu honetan beraz, esperientzia pilotuaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Alde batetik, Hendaia Herriko Udalarekin batera egindako hizkuntza-politikaren diagnostikoa eta Hendaia Herriko Euskalgintzaren ekarpenak eta bestetik, Euskalgintzaren Kontseiluak hizkuntza-eskubideetan oinarritutako hizkuntza-politika garatzeko egindako gomendioak. Horrekin batera, eranskin gisa, diagnostikoaren sintesi bat aurkezten dugu eta Eneritz Zabaleta juristak landurik, *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuaren eta frantses legediaren arteko bateragarritasuna aztertzen duen txostena.

ESPERIENTZIA PILOTUA

Esan bezala, esperientzia pilotuarekin bi helburu bete nahi izan ditugu: alde batetik, *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuaren aplikagarritasuna aztertu, eta hortik, beste udalerrietarako baliagarria izan daitekeen tresna atera, eta bestalde, udal pilotuari hizkuntza-politika zehazteko oinarriak eskaini.

Hendaiako Herriko Etxearen kasuan, Kultura eta Hizkuntza Politika Batzordeko Euskara Taldeak gidatu du prozesua. 2021eko martxoan Herriko Kontseiluak bere adostasuna eman ondotik, Euskalgintzaren Kontseiluarekin hitzarmena sinatu zen apirilean, eta proiektu pilotua aurkeztu zen Hendaian. Bertan parte hartu zuten, baita ere, proiektu pilotuko beste udalek, hau da, Uharteko eta Arrigorriagako ordezkariak.

Euskara Taldeak, Euskalgintzaren Kontseiluko teknikariaren laguntzarekin, herriko hizkuntza politikaren diagnostikoa osatu zuen. Diagnostikoa egiteko lan taldeko hautetsiek eta teknikariak galdetegiak betearazi zituzten zerbitzu guztietan eta ondotik Euskara Taldean osatu zen.

Diagnostikoa egiteko oinarria, esan bezala, *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentua izan zen. Erran nahi baita, zerbitzu guztietan, herritarrenganako euskarazko zerbitzua, komunikazio jarduera eta euskaraz lan egiteko aukerak aztertzeaz gain, udalak, kanpo eremuetan lantzen duen hizkuntza-politika neurtu zen. Eraitza, euskara teknikariaren laguntzarekin osatu eta zuzendu egin zen ondotik. Diagnostikoa herriko euskalgintzarekin partekatu zen eta aurrera begira lehentasunak non ikusten dituen galdetu zitzairen bai eta proposamenak jaso ere. Bi bilkura antolatu ziren udala eta Euskalgintzaren artean. Bildutako ekarpenak eta Euskara Taldean jasotako hausnarketak kontutan hartu ondotik, Euskalgintzaren Kontseiluak bere gomendioak osatu ditu Udalaren esku uzten dituenak orain.

Diagnostikoaren osaketan hautetsiek ere parte hartu izana nabarmentzekoa da. Izan ere, diagnostikoak hizkuntza-politikaren ildo eta ardatz nagusiak zein izango diren erabakitzeke elementuak eskaintzen ditu, honela hautetsiek, ildoak zehaztu eta erabakiak hartu baino lehen, ikuspegi orokorra izan dezakete. Gainera, Euskalgintzarekin diagnostikoa partekatu eta haien ekarpenak jaso izanak balio erantsia eskaintzen dio lanari, kontrasterako elementuak jaso ahal izan baitira.

Euskalgintzaren Kontseiluarentzat, dudarik gabe, esperientzia aberatsa izan da. Euskal Herri osoan landu den proiektua izanik, euskarak errealitate guztiz ezberdinak bizi dituen eremuetan, oinarri berdinarekin lan egin izanak irakaspen asko ekarri ditu eta hiru udalekin egindako elkarlanari esker, Euskal Herriko beste udaletan baliagarria izango den hizkuntza-politikarako tresna osatzen ahalko du orain.



Hendaiako Udalaren Hizkuntza Politika: Diagnosticoa

Euskaingintzaren Kontseiluak eta Hendaiako Herriko
Etxeak elkarrekin osatua

Diagnostikoa egiteko, *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuan agertzen diren neurriak erreferentzia gisa hartuz, galdetegi sortu dugu. Galdetegi horren bidez aipatu dokumentuan agertzen diren neurriak betetzen ote diren edo betetze bidean ote dauden jakin nahi izan dugu. Honela, diagnostikoaren emaitza hizkuntza-eskubideen prismatik neurtzen ahalko dugu.

Galdetegi osatzeko euskal lurraldeetan jadanik martxan zeuden tresnak baliatu ditugu. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan dira prozedura horiek aurreratuenak eta beraz, Eusko Jaurlaritzak ezarritako Erreferentziazko Marko Estandarraren adierazle sistema izan da erreferentzia nagusia eta *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuan agertzen diren elementu berriak gehitu zaizkio.

Behin galdetegi osatuta, erantzun guztiak *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuaren eskemaren eta neurrien arabera antolatu ditugu bertan agertzen ziren neurriak erreferentzia gisa ezarritik, hau da, helburu gisa irudikatuz. Hauek dira gako nagusiak:

Alde batetik, herri etxearen barne jarduerari dagokionez, herritarrei ahoz zein idatziz ematen zaien zerbitzua aztertu da. Horrez gain, herriko etxearen komunikazio jarduera, bai herritarrei begira eta baita ere bere barne jarduera administratiboari dagokionez aztertu dira. Azkenik, herriko etxeko barne jarduera ere aztertu da langileek euskaraz lan egiteko aukerak ote dituzten zehazteko.

Bestalde, herriko etxearen kanpo eragin eremua landu da, eta beraz, galderak arloz arlo banatu dira. Alde batetik, herriko etxeak kudeaketa zuzena duen egiturei dagokienez, eta bestetik, herriko etxeak sustapen lana egin dezakeen sektoreei begira. Gisa horretan hezkuntzaren alor zabala, hedabideak, kultura edota arlo sozioekonomikoa landu dira.

Galdetegi betetzeko beharrezkoa izan da herriko etxearen egitura aztertzea. Herriko etxearen barne jarduera neurtzeko, galdetegiaren lehen zatia hautetsi eta teknikarien bidez bete ahal izan dugu eta Hobekuntza Kontratuan agertzen diren elementuekin osatu dugu. Izan ere, Hobekuntza Kontratuan landu ziren eremuak baino zabalagoa izan da galdetegiak ukitzen zituenak.

Herriko etxearen antolaketa organiko zurrunaz gain, instituzio honek beste egitura autonomo batzuetan parte hartzen duen egiturak ere aztertu dira. Hala nola, GEUZ, DENENTZAT ZENTROA, CPIE, PORTUA, LANEKO, Hendaia Turismo eta Merkataritza...

Hendaiaiko Herriko Etxeak badu 20 urte jadanik hizkuntza-politika martxan duela, ez gara beraz deusen gainean hasten; Hobekuntza Kontratu eta 2016-2019 Euskararen Plan Estrategikoa kontutan hartuak izan dira lan hau egiteko.

Ezin saihestuko gaia dugu halaber, frantses legediak hizkuntza-politikan duen eragina. Borondatezko koadroa izanik, euskararen erabilera gunean guneko langilearen arabera izateko arriskua dago eta beraz irizpide zehatzak markatzeko zailtasuna agerikoa da. Bestalde, frantsesaren balio juridiko eskusiboak direla eta, batzuetan frantsesaren erabilera baizik ez da baimentzen, estatuaren kompetentziekin lotutako prozeduren kasuan, adibidez. Azkenik, ofizialtasun ezak langileria euskalduna kontratatze bidea zaildu egiten du eta horrek borondatezko formakuntza planak ezartzea eskatzen dio herriko etxeari aurrekontuan gainkostu bat eraginez.

Herriko etxearen egitura ikusita, eta bilatzen duguna kontutan harturik, hona funtsean aztertu diren elementuak:

1. Kanpo eta barne seinalazioa, irudia eta jarduera publikoa nola kudeatzen den.
2. Herritarrekiko harremana/zerbitzua zein hizkuntzetan den ahoz eta idatziz.
3. Langileen arteko harremanak nola egiten diren.
4. Zein hizkuntzatan egiten den harremana kanpo egiturekin (enpresa, instituzio, administrazio...).
5. Langileek euskaraz lan egiteko duten aukera (langile euskaldunen kopurua eta formakuntza aukerak).
6. Diru-laguntza eta kontratazio politika.
7. Eragin eremuan herriko etxearen politika:
 - a. Eragin eremu zuzenean herriko etxeak ezartzen ote dituen hizkuntza-irizpideak.
 - b. Zeharkakoak diren kasuetan zein den egiten den sustapen politika.

Aipatutako irizpideak kontutan harturik hona beraz Hendaiaiko Herriko Etxearen hizkuntza-politikaren diagnostikoa *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuaren argitan.

DIAGNOSTIKOA JASOTZEN DUEN TAULA

Euskalgintzaren Kontseiluak eta Hendaiaiko Herriko Etxeak elkarrekin osatua

PROTOKOLOA	HENDAIKO HERRIKO ETXEA
EUSKARA ZERBITZU HIZKUNTZA	
Herritarrei begira bere engaia- mendua adieraztea euskarazko zerbitzua eskaintzeko.	• HERRIKO ETXEAREN ENGAIAMENDUA: Hendaiaiko Herriko Etxeak 20 urte darama hizkuntza-politika gauzatzen. Politika hori 2015-2020 epean azkartu da, Hobekuntza Kontratuaren sinatzearekin, hasiera batean Hego Lapurdiko Hirigunearekin, Euskararen Erakunde Publikoarekin (EEP) eta gero Euskal Hirigune Elkargoarekin (EHE). Hobekuntza Kontratuarekin egin lanak adierazten du Hendaiaiko Herriko Etxeak euskarazko zerbitzua herritarrei lehenbailehen emateko borondatea. Hobekuntza Kontratuaren bidez 10 zerbitzutan hizkuntza plangintza garatzen jardun da Herriko Etxea 2015etik: • Harrera - Egoera Zibila – Hauteskundeak • Kirola • Komunikazioa • Kultura (Mendi Zolan, zinema eta Mediateka) • Gazte Informazio Bulegoa (Gazteria eta Numerikoa zerbitzua gaur egun) • Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusia • Irakaskuntza eta Eskolako Bizitza eta Haur eta Gazte Animazio zerbitzuak (Hezkuntza eta Haurtzaroa zerbitzua gaur egun) • GEUZ (bulegoak soilik) • Zentro Teknikoko Harrera Gainera 2016-2019 epealdirako Euskararen Plan Estrategikoa burutu zuen Herriko Etxeak Hendaiaiko Euskalgintzarekin batera. Ekimen horren ondorioz sortu zen Hendaiaiko lehen Euskara taldea.
Euskarazko harrera segurtatzea ahoz zein idatziz	• Hobekuntza Kontratuaren bidez zehaztutako zerbitzuetan euskarazko irizpideak landu dira. Atal honetan zerbitzu horietako batzuk aztertuko dira, hots: Harrera - Egoera zibila – Hauteskundeak, Zerbitzuetako zuzendaritza nagusia, GEUZ (bulegoak), Zentro Teknikoko Harrera eta besteak eremuetan landuko dira. • Hobekuntza Kontratuan ez diren zerbitzuen egoera ere aztertu da: Bizigunea eta ingurumen zerbitzua eta GEUZeko bulegoez gain Zahar Etxea, eta Etxean laguntzeko zerbitzua. • Horiez gain, Herriko Etxeak zeharka kudeatzen dituen egitura aztertu dira eta dagokien eremuetan landuko dira: Denentzat Gizarte Zentroa, Portua, CPIE, Hendaia Turismo eta Merkataritza eta dagokien ataletan landu dira. • Harrera - Egoera zibila - Hauteskundeak: Langile bat euskalduna da eta beste bat formakuntzan dago. Langile

euskalduna hor denean euskarazko harrera ziurtatzen da.

- **Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusia:**

Euskarri batzuk euskaraz dira eta langile bat ahoz eta idatziz bere ahaleen arabera, euskaraz jarduten da.

- **Zerbitzu Teknikoetako bulegoak:**

Zerbitzuak ez du euskarazko harrera segurtatzeko ahalmenik.

- **Bizigunea eta Ingurumen zerbitzua:**

Zerbitziburua euskalduna da, klean diren 60 langileetatik 20 bat euskaldunak dira. Bulegoetako 5 langileetan 4 euskaldunak eta bosgarrena euskara ikasten ari da bere kontura.

Klean euskarazko arreta eskaini daiteke, kontaktu handia dago publikoarekin eta langileen herena euskalduna da, baina ez da irizpide bat, beraz ez zaio herritarrari segurtatzen edo aukera ematen euskaraz aritzeko.

- **Gizarte zerbitzuak:**

- Zahar Etxea:**

Ahozko harrera euskaraz egiten da, idatzizkoa berriz ez. Herritarrek euskaraz egin eskaera bati langilearen arabera euskaraz erantzungo zaio, gehienetan ez zaio euskaraz erantzuten.

- Etxean laguntzeko zerbitzua:**

36 etxe-laguntzaileetatik 3 euskaldunak dira eta beste 12k nozio batzuk dituzte. Eskaera egin duten hartzaileen etxeetan, etxe-laguntzaile euskaldunak ari dira. Beharrak estaliak dira beraz. Zaila da 230 hartzaileen artean nor den euskalduna jakitea eta hartzaileek berek ez dute beti eskaera egiten. Euskarazko zerbitzuaren aukera ikusgarriagoa egitea aipatzen da. Zerbitzuan bi langile dira, sailburuak euskara daki, euskaraz eskaintzen du ahozko zerbitzua eta etxe laguntzaile euskaldunekin euskaraz ari da. Frantses administrazioarekin aldiz ez. Bere lankideak ez daki euskaraz.

- DENENTZAT zentroa:**

Idatzizko harremanak ez dira euskaraz. Ahozkoan berriz langile bat euskalduna denez herritarraren hizkuntza hautuaren arabera egokitzen da. Telefono bidezko harrera ez da euskaraz egiten bai aldiz gaztelaniaz.

- **Oro har:**

Idatzizko harremanak: Herriko etxearen administrazio zuzenaren pean diren euskarriak, herritarrei orokorrean zuzenduak direnean, euskaraz dira. Itzulpenetarako irizpideak finkatuak dira: euskarri orokorrak euskaratzen dira, espezifikoak eta herritar bati zuzendutakoak ez. Halere, irizpide horiek ez dira zerbitzu guztietan betetzen.

- Herriko etxeko harrera gunean ahozko harrera euskaraz egiten da, euskara dakien langile euskalduna hor dagoenean. Beste langile bat formakuntzan da. Beste zerbitzuetan euskarazko harrera langileen hizkuntza gaitasunaren arabera da.

	• Herriko etxeak ez du langile nahikorik euskarazko zerbitzua bermatzeko nahiz eta formakuntza plangintza bat martxan jarria den. • Ahaleginak egiten dira langile euskaldunak identifikatzeko. Hobekuntza Kontratuko helburu fitxetan euskaldunak edo euskalduntzeko prozesuan diren langileak identifikatzeko tresnak badira: telefonoa hartzean lehen hitza euskaraz erratea, izenpedura elektronikoan hitz batzuk, mahai-gainekoa eta bulegoko oharra elebidunez ezarri adibidez...
Herriko etxearen konpetentzia- ren baitan diren prozedurak eus- karaz egin ahal izatea. o Herritarra euskaraz zuzen- duz gero euskaraz erantzun ahal izatea.	• Inprimaki gehienak euskaraz dira eta herritarrari egiten zaion arreta langilearen arabera da. • Herritar euskaldun bat euskaraz zuzentzen zaionean herriko etxeari, herriko etxeak eskaera onartu eta ahal duenean euskaraz erantzuten dio. • Ez dago baldintzarik zirkuiturik osatzeko, ez baitago langile nahikorik euskara dakienik.
Zerbitzuak euskaraz eskaintzeko langile euskaldunak ukatea eta horri begira kontratazio politikan beharrezko aldaketak ematea. o Herriko etxeko atal guztietan langile euskaldunak egotea zirkuituak ahalbidetzeko.	• Kontratazio berrietan euskararen ezagutza eskatzen (exigé) da soilik lanpostuak justifikatzen badu (ATSEM, Euskara teknikari...). • Beste postuetan (herritarreko arreta barne) euskararen ezagutza balo- ratzen (souhaité) da. Baina askotan ez dago euskara dakien hautagairik.
Herritarrenganako zerbitzu bat kanpo kontratatzean euskarazko zerbitzua eskainiko dela ziurta- tzea. Diru-laguntza politikan hiz- kuntza irizpidea egotea. o Kanpo harremanetan euska- raz egitea.	• Kontratazioak: Euskarazko zerbitzu bat eskaintzeko bada, kontratuan zehaztu egiten da. Beste zerbitzuei dagokienez ezin da euskara irizpide gisa erabili, lehiaketa publikoa egiten da. Harremana ez da euskaraz egiten oro har. • Diru-laguntzak: Euskaraz soilik egiten diren diru-laguntza eskaerak ez dira onartzen. Diru-laguntzetan ez da hizkuntza-irizpiderik kontutan hartzen. Euskarazko eragileei diru-laguntza eskaintzen zaie baina ez da euskara irizpideengatik izaten. • Kanpo harremanei dagokienez: Harremana ez da euskaraz egiten oro har. Irizpideak ez daude zehaztuak baina euskaldunekin euskaraz egiten da. Euskara zerbitzuak beti elebi- tan egiten du, beste zerbitzuek berriz, langileen hizkuntza gaitasunaren arabera, gehienetan frantsesez.
Herriko etxearen egitura guzie- tan hizkuntza-politika plangintza gauzatu, ebaluatu eta egokitu egi- ten dela.	• Hobekuntza Kontratuaren baitan herritarrekin harremana zuten zerbitzu batzuk lehenetsi ziren (10 zerbitzu). Langileen formakuntzan eta euskarri- itzulpenetan eman da arreta. Plangintza zentzu horretan egina izan da. • Gaur egun ez dago plangintzarik nahiz eta formakuntza planak segitzen duten. • Hizkuntza-politikaren plangintzan euskararen eremuko gizarte eragileek ez dute parte hartzen. Elkarlanean ekimen batzuk egiten dira, hala nola Euskaraldia, Hendaia Euskaraz...

- Mintzaian euskara elkarteak sortu zen eta bertan euskalgintzako eragileak biltzen dira, baina ez dute herriko etxeko hizkuntza-politikaren diseinuan edota garapenean parte hartzen.

KOMUNIKAZIO JARDUERA EUSKARAZ

Irudi korporatiboa euskaraz bermatzea kanpo eta barne seinale-tikan bai eta euskarrietan.

- Irudi korporatiboaren karta grafikoa bada baina bertan ez dira hizkuntza irizpideak jasotzen. Logo berria bi hizkuntzetan da eta izenpedura elektronikoa ere bai.
 - Irudi korporatiboarekin lotutako lehen mailako zenbait elementu ez dira euskaraz (langileen jantziak, pupitreak...).
 - Seinaletikari dagokionez: seinaletika finkoa elebitan da, berrituz joan ahala elebitan jarri da. Argi seinaleak elebitan dira.
 - Segurtasun eta babes seinaletika ez dira euskaraz.
 - Zerbitzu teknikoei lotutako seinaletika ez da euskaraz oro har.
 - Erantzungailua euskaraz da (hirueletan).
 - Denentzat gizarte zentroan seinaletika frantsesez da: gizarte zentroa CAF eta estatuaren onarpenaren menpe dago.
 - Zahar Etxean: Kanpo- eta barne-seinaletika elebitan da.

Idatzizko komunikazio euskarriak euskaraz egotea bai eta ingurune digitala ere.

- Komunikazio zerbitzuan langile euskaldun bat dago baina denbora erdiz ari da.
- Udal Aldizkaria elebitan da; ez da orekatua baina frantsesez diren artikulua guztiek laburpena dute euskaraz.
- Barne aldizkarian ere frantsesez dauden artikuluen laburpena egiten da euskaraz eta irudi finkoa (izenburuak) elebitan da.
- Prentsa ohar guztiak elebitan dira.
- Afitxak, esku orriak, programak elebitan dira.
- Komunikabideetako iragarkiak ez dira beti elebitan.
- Lan eskaintzak webgune berezietan egiten dira eta estatu mailako webguneak dira, beraz frantsesez dira. Herriko webgunean agertzen direnak, berriz, elebitan dira eta euskarari lotua den lan eskaintza bat denean, herri zirkuituetatik elebitan banatzen da.
- Papeteriaren goiburuak (papier en-tête) elebitan dira.
- Elebitan da kanpoko komunikazio guzia oro har: Elkarleen gida eta beste gida guztiak...
- **Ingurune digitala:**
 - Herriaren webgunea nagusiki elebitan da.
 - Kultur sailaren webgunea euskaratua izan da baina ez dago oraindik ikusgai.
 - Mediatekaren webgunea nagusiki ez da euskaraz.
 - PuntuEus domeinua hartua du herriko etxeak, baina bigarren mailakoa da, ez zuzeneko.
 - Helbide elektronikoan, <hendaia.eus> domeinua ere balia dezakete hautetsi eta langileek, baina salbuespenak salbuespen, ez da baliatzen ez baita horri buruzko informaziorik pasa.
 - Herritarrei begirako espazio digitala ez da euskaraz, logizielak ez baitira euskaraz oinarrian.
 - Facebook-eko orrian nagusiki frantsesez komunikatzen da, argitalpen zenbait elebitan dira eta bat-bateko informazio trukaketa ez da euskaraz ziurtatzen.

	• Hendaia Euskaraz facebook-a berriz elebitan da (salbuespen batzuk euskara hutsean); ez da orri ofiziala baina euskara zerbitzuarena da. • Zailtasun nagusia itzulpenak ziurtatzea da. • DENENTZAT zentroa: idatzizko euskarriak ez dira euskaraz, oso konplikatu da elebitan egitea, ez da borondate faltagatik, baliabide kontua da.
Jarduera ofizial zein publikoa euskaraz segurtatzea.	• Herriko etxearen jarduera ofiziala: • Euskaraz ari den lantalde bakarra Euskara da. Gainerateko lantalde eta batzorde guztiak frantsesez iragaten dira. • Herriko Kontseiluan hautetsi euskaldun batzuk deliberoak eta hitzartzeak euskaraz egiten dituzte, baina ez denek. • Kontseiluko bildumak elebitan dira. • Herriko etxearen erabakiak (“arrêté” delakoak) ez dira euskaraz. • Jendaurreko ekitaldiak: • Hautetsi euskaldun batzuek elebitan egiten dute publikoaren arabera. Batzuetan dena euskaraz, bestetan bi hizkuntzetan (ekitaldien arabera). • Auzapezak batzuetan hitz batzuk euskaraz egiten ditu. • Langile euskaldunek elebitan egiten dute gehienetan, ekitaldiaren arabera. • Ez da erabilera irizpiderik, ez hautetsiei ez langileei begira. • Hobekuntza Kontratuaren baitan egiten diren langileen helburu fitxetan langileei galdetzen zaie zein heinetan erabiltzen duten euskara.
Herriko etxearen ardurapean diren beste entitateek ere komunikazio irizpide berdinak ukatea.	• Denentzat zentroak eta Portuak ez dituzte herriko etxearen irizpideak betetzen, seinaletika ez da erabat euskaratua eta harrera gunetan ez da euskarazko zerbitzua bermatzen. • GEUZeko bulegoetan seinaletika elebitan da eta publikoari begirako komunikazioa elebitan da. Harrera ez da euskaraz bermatua. • CPIE, LAN-EKO, Hendaia Turismo eta Merkataritza bulegoan berriz, seinaletika euskaraz da eta euskarazko zerbitzua bermatzen da batzuetan.
EUSKARAZ LAN EGITEA	
Herriko etxeak euskara lan hizkuntza gisa erabiltzea, langile euskaldunei euskara erabiltzeko aukera emanez.	• Hendaia Herriko Etxean orain arte egin den hizkuntza-politika zerbitzua euskaraz eskaintzeari begira egin da. Izan ere, udaletxean euskara ez da lan hizkuntza nahiz eta langile euskaldunek euskaraz egin edo barne dokumentu batzuk euskaratuak izan (opor fitxa eta barne buletina kasu). • Bestalde langileek ez dute legezko beharkizunik euskara jakiteko, are gehiago, ez dute zerbitzua euskaraz eskaintzeko ere beharkizunik. Udalaren eta bertako langileen borondatezko urratsa da. Halere, herriko etxeak euskararekiko hartu duen engaiamenduaren bidez langileak euskaraz lan egitera bultzatzen ditu.

Lan jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak euskaraz egotea. Euskaldunak diren sailetan unitateak sortuz, barne dokumentuak euskaraz ezarri, behar direna baliabide tekniko eta informatikoak euskaraz ezarri, aldi bereko itzulpena planetan ezarri, erabilera bultzatzeko sentiberatzen saioak eginez, arduradun politikoei euskarazko ikastaroak jasotzeko aukera eman.

Langileek euskaraz lan egiteko maila egokia izatea eta langile euskaldunak kontratatzea. Formakuntza sustatuz, kontratazioan irizpideak ezarri, formakuntza planak ezarri, zerbitziburuek engaiamendua hartuz langileek baldintza egokiak izan ditzaten euskara erakasteko.

• **Lan jarduna eta langileen arteko komunikazioari dagokionez:**

- Ez da euskara unitaterik.
- Animatzen dira langile euskaldunak euskaraz aritzera.
- Euskaraz dakiten langileek euskaraz egiten dute erregulariki baina ez da zerbait formala.
- Lanerako tresnak eta barne komunikazioa ez dira euskaraz.
- Barne erabilera sustatzeko, opor fitxak, lan zirkular ereduak edo barne aldizkaria euskaraz dira. Aldizkarian euskara ez da orekatua, baina artikulua guztiaren laburpena segurtatzen da euskaraz.
- Zerbitzu batzuetan, langileak euskaldunak badira ere, ez da euskara lan jardunerako erabiltzen.
- Lan bilkuretako idatziak, aktak... ez dira euskaraz, euskara zerbitzukoak izan ezik.

• **Tresnei dagokionez:**

- Fotokopiagailuak frantsesez dira, lan tresnak frantsesez dira, eta informatika zerbitzuan ez da langile euskaldunik.
- Intraneta ez da euskaraz.
- Softwarea informatikoa ez da euskaraz.
- Kanpoan erositako programa profesionalak ez dira euskaraz (faktura-zioa, egoera zibila, zinema/kultura txartelak...)
- Nabigazioa euskaraz jarria dute euskaraz dakiten langile batzuek.

• **Bi formakuntza mota daude:**

- Euskara formakuntza lan denboran.
- Besteak (CNFPTrenak adibidez) frantsesez dira, ez dira Herriko Etxeak antolatzen dituen formakuntzak, kanpokoak dira.
- Batzuetan euskara zerbitzuak antolatzen ditu formakuntza laburrak euskaraz.

• **Martxan jartzen diren prozedurak:**

- 2004tik langileak formatzen dira.
- Lehenetsuneko zerbitzu edo postu batean ari diren langileak lan denboran formatzen dira. Sailburuek ere eskatzen ahal dute langileek euskara ikas dezaten lan denboran.
- Laguntza bat bada ere lanetik kanpo ikasteko, lehenetsuneko zerbitzuetan ez direnentzat edo lan denboran libratu ezin direnentzat.
- Batzuek formakuntza trinkoa egiten dute 6 hilabetez postu espezi-fikoetan (hautzaindegietan edo eskoletan adibidez posible da batzuetan). Besteetan, ordezkapen arazoengatik, ez da posible izaten.
- Ikastaroen kudeaketarekin lotutako agiriak euskaraz dira euskarazko formakuntza denean edo euskara zerbitzuak antolatzen duenean. Besteak ez dira euskaraz.
- Kargu politikoak ez dira formakuntza planean sartzen, beren kabuz egiten dute eta ez da haienganako sentiberatze planik egiten.
- Beste instituzio batzuekin partekatutako diren guneetan, adibidez Denentzat zentroa (estatuarekin), ez dago langileak euskalduntzeko prozedurarik.

• **Langileen kontrazioa:**

- Kontratazio berrietan euskararen ezagutza eskatzen (exigé) da soilik

	lanpostuak justifikatzen badu (ATSEM, Euskara teknikari...). • Beste postuetan (Herritarrekiko arreta barne) euskararen ezagutza baloratzen (souhaité) da. Baina askotan ez dago euskara dakien hautagairik.
--	---

HEZKUNTZA FORMALA ETA HAUR HEZKUNTZA

Herriko etxearen ardurapeko egiturak: o Euskarazko zerbitzua, euskarazko komunikazio jarduera, euskaraz lan egiteko baliabideak.	• Hezkuntza eta haurtzaro zerbitzua: • Administrazio bulegoetan ez da euskarazko zerbitzua bermatzen. • ATSEMAk: Zazpi langilek euskarazko arreta eman dezakete. Gela elebidunen beharrak estaliak dira. • Irandatz haurtzaindegia: Ahozko harrera ez da euskaraz, haurtzaindegian izen-emateko fitxa euskaraz da baina beste idatzizko harremanak ez. Hizkuntza paisaiari dagokionez, kanpoko panel nagusia euskaraz bada ere, beste guzia ez da euskaratua. • Dongoxenia haurtzaindegia: kanpo eta barne seinaleetika elebitan da. Haurtzaindegian euskarazko zerbitzua bermatzen dute langile euskaldunek. Gurasoekiko harremanak zuzendariarekin euskaraz ez badira ere, euskarazko harremana bermatu daiteke langileen bidez. Idatzizko barne komunikazioak ez dira euskaraz. LEHA dispositiboari esker formakuntza aukerak daude. Hizkuntza paisaiari dagokionez seinaleetika euskaratua da. • Kirol zerbitzua: Bi langile dira, bat euskalduna eta bestea formakuntzan da. Administrazio bulegoetan euskarazko harrera ziurtatua da langile euskalduna hor denean. • Ikastola eta klase elebidunetako animazioak ez dira euskaraz segurtatzen baina bi langile formakuntzan dira kirol zerbitzuan eta igerilekuan.
Murgiltzearen aldeko sustapen lana egitea.	• Murgiltzearen aldeko sustapenari begira, herriko etxeak ikastola laguntzen du diru-laguntza bidez eta eraikinak eta baliabideak eskainiz.
Harrera protokoloetan haurren eta helduen euskarazko irakas-kuntzaren inguruko informazioa banatu eta sustapen egitea.	• Eskolan izen-emateko txostenean, irakatsitako hizkuntzei buruzko informazioa ematen da. Hezkuntza zerbitzuan ere gurasoak informatzen dira. • Sentsibilizazio mintzaldiak antolatzen dira Elkargoarekin partaidetzan.

HEZKUNTZA: ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK, MUSIKA ETA ARTE ESKOLAK ETA ELKARTE MUNDUA ORO HAR KULTURA ETA KIROLA

Jarduerak eskaintzen dituzten elkarte edo enpresei euskarazko eskaintza areagotu dezaten sustapen lana egitea. Euskarazko zerbitzua ematen duten zentroen identifikazioa egitea eta herritarren esku uztea.	• Diru-laguntzak esleitzeko ez da hizkuntza irizpiderik kontutan hartzen. • Euskarazko elkarteak diru-laguntzen dira euskarari egiten dioten ekarpenagatik. • Elkarte batzuek euskarazko zerbitzua edo jarduera eskaintzen dute eta elkartearen aurkibidean identifikatuak agertzen dira.
---	---

HEZKUNTZA: AISIALDI ZENTROAK

Herriko etxearen ardurapeko egiturak:

- o Euskarazko zerbitzua, euskarazko komunikazio jarduerak, euskaraz lan egiteko baliabideak.

Herriko etxearen ardurapeko aisialdi zentroan hizkuntza irizpideak ezartzea eta hizkuntza plangintzaren jarraipena egitea.

Euskarazko taldeak sortzeko haur kopuru minimoa ez izatea frantseskoa baino handiagoa.

Euskarazko eskaintza sustatzeko komunikazio kanpaina.

Herriko etxearen jabegoa ez diren zentroak.

- **Aisialdi zentroa (ama eskola eta lehen maila):** Hendaia kasu berezia da gaztelaniaren presentzia handia delako biztanleen artean. Herriko etxeko aisialdi zentroan ez da euskarazko eskaintzarik baina animatzaile batzuk euskaldunak dira. Batzuk herriko etxeak formatu ditu lan denboran. Guraso askok frantseseko eskaintza eskatzen dute, euskarazkoa Uda Leku Elkartek bermatzen baitu eta Udalak elkarte hori laguntzen du.
- **Gazteria eta Numerikoa zerbitzua:** Langile batek euskara maila apala du eta publiko euskaldunari ahal duen heinean euskaraz zuzentzen zaio. Gazteentzako animazioa eta gazteen aisialdi zentroa ez da euskaraz bermatzen.
- **Ludotekan** euskarazko zerbitzua bermatzen da.
- **CPIE (Abadia):** idatzizko zerbitzua euskaraz eskaintzen da, ahozkoa ez beti. Egiten diren jardueretan euskarazko zerbitzua eskaintzen da.
- Uda Leku elkartek eskaintzen du euskara hutsezko aisia eta herriko etxeak diruz laguntzen du.
- Uda Leku elkartek betetzen du euskarazko zerbitzuaren funtzioa.

HEZKUNTZA: HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABATETZEA

Herriko etxeak helduen euskalduntzea eta alfabetatzea sustatzea.

Herriko etxeak helduen euskalduntzea eta alfabetatzea doakoa izan dadin bultzatzea.

Euskara ikasteko aukeraz eta onurez informazioa zabaltzea.

Gurasoei begira sentiberatze kanpainak egitea.

Euskararen erabilera guneak sustatu eta baliabideak eskaini.

- Helduen euskalduntzeari eta alfabetatzeari dagokionez, ez dago euskara ikasteko diru-laguntza sistemarik herritarrei begira.
- Herriko etxeak AEK laguntzen du diru-laguntza eskainiz eta lokalak erraztuz eta Korrikan parte hartzen du.
- Elkartegaren helduen euskalduntzeari buruzko kanpaina zabaltzen du Hendaiaiko herriak.
- Herriko etxeko langileak euskalduntzeko prozedura bat martxan da.
- Lehenetsuneko lanpostuetako langileak lan denboran formatzen ahal dira eta besteei lan denboratik kanpo forma daitezen laguntza bat eskaintzen zaie.

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

Bezero denean herriko etxeak euskarazko zerbitzua jasotzea eskatzea.

Kontratazio mota guzietan hizkuntza irizpideak egotea.

Merkataritza baimenak ematean hizkuntza irizpideak zehaztea.

- Herriko etxea bezero denean, ez du euskarazko zerbitzua edo harremana jasotzea eskatzen, ez bada euskararekin lotutako gai baterako.
- Kontratazioetan, herritarrari begirako euskarazko zerbitzu bat eskaintzeko bada, kontratuan zehaztu egiten da.
- Merkatariekin euskararen aldeko kanpaina puntualak egin izan dira.

Eremu sozioekonomikoak eus-
kara sustatzeko kanpainak egitea.

Merkatari elkarteekin euskara
sustatzeko politikak adostea.

Euskarazko zerbitzua eskaintzen
duten zerbitzuen zerrenda.

Tokiko ekoizpenak eta merka-
tuko produktuen etiketak euska-
ratzeko aholkularitza edo lagun-
tza egotea.

Osasunari eta segurtasunari bu-
ruzko euskarri fisikoak euskaraz
jartzeko erraztasunak eskaintzea.

Kanpo iragarkietako euskarriak
euskaratzeko erraztasuna es-
kaintzea.

Euskaraz kontsumitzeko senti-
beratze kanpainak egitea.

- Ez da diru-laguntzarik eskaintzen arlo pribatuan euskarazko euskarriak sortzeko. Ez dago baliabiderik euskarazko itzulpenak segurtatzeko merkatarientzat, aholkularitza, aldiz, ematen da.
- Material didaktikoa eskuragarri dago webgunean, saltegiek erabili dezaten.
- Herriko etxea Euskal Monetaren kide da.
- Ezin da merkataritza baimenetan hizkuntza baldintzarik ezarri.
- Funtsezko zerbitzuei dagokionez (energia, ura garraioa, telefonia) estatu mailakoak direnean ez da euskarazko zerbitzurik eskatzen, elkargoaren menpe direnean elkargoak kudeatzen duen hizkuntza-politikaren baita egiten da (zaborra, garraioa, ura).
- Covid garaian, Elkargoak zabaldu duen seinaleetika elebiduna erabili da.
- **EPIC Turismo eta Merkataritza Bulegoa:** ahozko harrera euskaraz se-
gurtatzen da ia osorik. Hiru langiletik bi euskaldunak dira. Idatzizko zer-
bitzua euskaraz bermatzen da herritarren hizkuntza hautuaren arabera.
Online bidezko arreta euskaraz egiten da baina ez da erabat bermatua.
- **Portua:** zerbitzua ez da euskaraz eskaintzen ez ahoz ez idatziz.

HEDABIDEAK

Herriko Etxearenak diren he-
dabideetan euskararen presen-
tzia frantsesaren parekoa izatea.

Tokiko hedabide euskaldunak
sustatzeko planak ukatea.

Publizitate instituzionala euska-
raz ezartzea hedabideetan.

- Udal Aldizkarian Euskararen presentzia bermatzen da. Artikulu guztiek laburpena dute euskaraz.
- Tokiko hedabide euskaldunak laguntzen dira: diru-laguntzak (Herriko Etxea eta Partzuergoa) eta lokalak.
- Komunikazio zerbitzutik igortzen diren publizitate instituzionalak elebi-
tan dira.

INGURUNEA NUMERIKOA

Haur eta gazteentzat produktu
numerikoak euskaraz eskuraga-
rri egotea.

Tokiko elkarten sare numerikoa
euskaratzeko laguntza ematea.

- Mediatekan euskarazko produktuak eskuragarri daude.
- Herriko sare sozialak ez dira euskaraz.
- Ez dago diru-laguntza espezifikorik produktu numerikoei dagokienez.

KULTURA

Herriko etxearen kultur zerbitzua euskaraz ematea, komunikazio jarduera euskaraz ematea eta euskaraz lan egiteko aukera eskaintzea.

Kultur programazioan euskararen presentzia herriko ezagutza tasa baino %10 altuagoa izatea.

Herriko azpiegiturretan ekimenak antolatzeko hizkuntza irizpideak egotea (komunikazioa euskaraz izatea adibidez,..)

Euskarazko programazioa ematen duten elkarteentzat laguntza espezifikoak egotea.

Zinema aretoetan euskarazko zinema gutxienekoak zehaztea.

Euskaraz sortutako kultura eta kultura unibertsala euskaraz sustatzea.

Euskaraz sortzen duten eragile eta norbanakoentzat laguntzak egotea.

- Kultura zerbitzua Hobekuntza Kontratuaren baitan sartzen den zerbitzua da. Kultur sailaren webgunea oraindik eraikuntzan da eta helburua elebitan izatea da. Bestalde, kultur agenda eta festibalen programak elebitan dira.
- Mendi Zolan-en zerbitzua euskaraz bermatzen da.
- Zineman euskarazko zerbitzua bermatua da.
- Mediatekan hiru langilek euskarazko zerbitzua ematen dute lanean direnean. Kasu gehienetan euskarazko zerbitzua eskaintzen da. Mediatekaren web orria partez euskaratua da.
- Zerbitzu guzi horietan seinaleetika elebiduna da.
- Herriko etxeko kultur programazioa sortzen diren produkzioen arabera egiten da, orduan tasa %10 eta %15-20en artean izaten ahal da. Musika barnean kontatua da. EKEko "Ibilki" programan parte hartzen du kultura zerbitzuak ere.
- Elkarteei ez zaie eskatzen komunikazioa euskaraz egitea eta ez da gela bat lortzeko baldintza. Aldiz, herriko etxeak euskaraz komunikatzen du antolatzen dituen ekitaldi guztietan.
- Diru-laguntza politikan ez dira bereizten euskara hutseko kultur egitasmoak.
- Zinema aretoan euskaraz ekoizten diren eta Iparraldean banatzen diren filma guztiak ezartzen dira.
- Herriko etxeak euskaraz sortutako kultura sustatzen du, egonaldiak eskainiz, ko-produkzioak eginez, partaidetzak osatuz...
- Kultura zerbitzuak sare batzuetan parte hartzen du : adib. Zu-Bi (sorkuntza-hedapena: euskarazko antzerki konpainia gazteentzat), etab.
- Euskaraz sortzen duten eragile eta norbanakoentzat ez dago planik zehaztua. Halere lekuko artistei begirada berezia ematen zaie. 2021ean euskaraz soilik sortzen duen konpainia bat instalatu da herrian (Axut!). Herriko etxeak utzi dio lokala, laguntza... eta hitzarmen bat izenpetu da.

ONOMASTIKA

Euskaltzaindiak hartzea erreferentzia gisa toponimian.

- Hautetsi talde batek euskaratu zituen kale izen guztiak aspaldi, eta kale izendegi hau da erreferentziatzat hartua dena.
- Lan toponimiko eta onomastiko sakon eta estandarizatua egiteke dago.
- Euskarazko izen toponimikoak ez dira errespetatzen.

Herriko izendegia euskaratzea.

- Herriko izendegia euskaratua da.



2

Hendaiako Euskaigintzaren ekarpenak

Hona hemen Hendaiaiko Herriko Etxea eta Kontseilua elkarrekin lantzen ari diren proiektu pilotuaren baitan Hendaiaiko Euskalgintzak eginiko ekarpenen bilduma.

Hizkuntza-politika definitzeko diagnostikoa aurkeztu zitzairen elkarteei 2021eko irailean eta horrekin batera lau galdera luzatu zitzaizkien:

- Diagnostikoarekin bat egiten ote zuten.
- Aurrera begira zein eremu lehenetsiko luketen.
- Zein proposamen zuten.
- Nolako harremanak izan behar ote zituzten Herriko Etxeak eta Euskalgintzak.

Bestalde, elkarteek lehentasunak sailkatu zituzten eta proposamenak egin.

PARTE HARTU DUTEN ELKARTEAK

- TXIKI TXOKO ELKARTEA
- HENDAIKO AEK
- ANTETA IRRATIA
- MINTZAIAN
- MUTXIKO
- AKELARRE
- BALEAK
- HENDAITZ GAZTETXEA

DIAGNOSTIKOARI BURUZKO IRITZIAK

- Ados oro har.
- Aitzinapen handiak 20 urtean.

Indartzekoa:

- Herritarrenganako euskarazko zerbitzua.
- Euskararen erabilera Herriko Etxean.

LEHENTASUNAK

ZERBITZUA EUSKARAZ

Lehentasuna eman zaio, bereziki, euskarazko zerbitzua bermatzeari. Funtsezkotzat jo da publikoari begira euskarazko arreta bermatzea zerbitzu guzietan. Azpimarra ezarri da publikoari begirako zerbitzuetan bereziki.

KOMUNIKAZIOA

Komunikazio jarduera izan da beste arreta puntu nagusia. Bereziki ahozko komunikazioan jarri da azpimarra, publikoan zein ofizialean. Halere, komunikazio publikoan bereziki bilkura idekiei, auzo batzordeen permanentziei edo eragileekin egiten diren bilkurei eman zaie arreta.

Idatzizkoan, finkoak ez diren euskarrietan, e-posta bidezko komunikazioetan (euskara zerbitzutik at datozenak) eta sare sozialetan ezarri da arreta.

Bestalde diru-laguntza jasotzen duten elkarteei euskarazko komunikazioa euskaraz heda dezaten lortzea lehentasuntzat hartu da.

IRUDIA ETA HIZKUNTZA PAISAIA

Irudiari dagokionez, hizkuntza paisaiari jarraipena egitea eta itzulpenetan zuzentasuna zaintzea aipatu da.

HAUR HEZKUNTZA

Arloei dagokionez, haur hezkuntza izan da aipagai, bereziki lrandatzeko haurtzaindegia. Euskararen pre-

sentzia bermatzea izan zerbitzuan edo edukian garrantzitsutzat jo da.

HELDUEN ERAKASKUNTZA

Hendaia herriarrak euskalduntzea lehentasunetan ezarri dute elkarteek eta AEK egitura indartzea garrantzitsutzat jo da.

KIROLA ETA KULTURA

Euskarazko kirol eskaintza indartzea eta kirol instalazioetan euskararen presentzia segurtatzea jaso da ekarpenetan. Eragileen aldetik lehentasuntzat jo da.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Merkataritzari begirako sustapena.

PROPOSAMENAK

Proposamenak, zerrendatutako lehentasunei lotuak batzuk, eta erabileraren sustapenari lotuak besteak, izan dira gehienbat.

Herriko etxea

Euskarazko zerbitzu egokia eskaintzeko eta beraz, herriko etxeko langile eta ordezkarien artean erabilera sustatzeko, formakuntza planak indartzea eta sentiberatze kanpaina zuzenduak diseinatzea proposatu da.

Horrez gain, euskararen erabilera, ahozkoa zein idatzizkoa, segurtatzeko irizpideak markatzea eta bide orri bat zehazteaz gain haren aplikazioa bereziki kulturen, hezkuntzan, hirigintzan, gazterian edota herritarren parte hartze ekimenetan segurtatzea proposatzen da.

Diru-laguntza politikari dagokionez, aipatu da ez ote den diru-laguntzetan hizkuntza irizpide gisa jasotzeko aukera aztertzen ahal; adibidez, euskaraz komunikatzeagatik puntuazioa emendatzea edo diru-laguntza gehigarria eskaintzea.

Kirol elkarte eta beste elkarteek beraien komunikazioa euskaraz ere egiteko, Herriko Etxeak bere gain itzulpenak hartzea aipatu dugu, baina agian posible da komunikazioak euskaraz egiteagatik diru-laguntza gehigarri bat eskaintzea, elkarte guztietan euskaldunen bat egongo dela ulertzen dugu eta elkarte bakoitzak bere "itzulpen zerbitzua" sortu dezakeela, eta agian merkeago eta lan karga gutxiago litzateke Herriko Etxearentzat.

Aurrekontua emendatzea ere proposatu da: Legediaz gain, dirurik eza dela arazo esan dute [Euskalgintza eta Herriko Etxearen arteko bilkuran], agian Herriko Etxeak euskararen aurrekontua handitu behar luke.

Herriko etxearen eragin eremua

Hendaia Euskaraz hilabetea birformulatzea proposatzen da, herriko etxea eta elkarteak gehiago inplikatur.

EusLider programan parte hartzea eta indartzea: AEKk eta AHIZEk martxan duten EusLider programa bideratu eta proposatu beharko lieke herriko etxeak, barruko langileei ez ezik, herriko kirol, sozial eta kultur arloko elkarteak, eta ahal bezainbat kolektibori. Herriko etxearekin harremanetan diren heinean, euren agendaren parte dira, eta diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten eragileek espresuki, euskararen erabileran konpromisoa hartu beharko lukete. Programa eraginkorra dela demostratua dago, euskararen erabilera jarrerak aldatu baino, jokamolde eta dinamika berriak sortzen dituelako.

Lehentasunetan agertu den beste atal bat elkarteekiko harremana eta jardura izan da.

- Alde batetik proposatzen da herritarrak eta elkarteak eskaera ofizialak euskara hutsean egin arren, herriko etxeak eskaerak jaso eta itzulpen zerbitzua frantsesera eskaintzea.
- Bestalde, diru-laguntza jasotzen duten elkarteek haien komunikazioaren hedapena ele bitan egin dezaten sustatzea proposatzen da, baliabideak eskainiz adibidez.

Helduen euskalduntzea: Hendaia herriarrak euskalduntzeko laguntza sistema bat abian ezartzea proposa-

tzen da, baldintza batzuk kontutan hartuz (zergak, DIF, Asistentzia...).

Alor sozioekonomikoan: merkataritzan euskara erabiltzeko kanpaina egitea proposatu da. Hendaia Merkataritza egiturarekin lan egitea aipatu da.

Arnasgunea: Kultura edo erabilera indartzeko espazioen garapenean ezarri genezakeen proposamen bat egin da baita ere: kafe antzoki bat edo, euskal elkarteak topo egin dezaketen arnasgune bat egokitzea proposatu da.

EUSKALGINTZAREN PARTE HARTZEA HERRIKO HIZKUNTZA POLITIKAN

Batzorde extramunicipal bat osatzea proposatzen da:

- Hizkuntza politika elkarrekin definitu, ondoren, urtero bilana egin, akatsak zuzendu, funtzionatzen duena eta ez dabilena aztertu. Adostasunez zehaztutako epe batetik behin Hizkuntza Politika berrikusi eta minimo horietatik gorako aldaketak egin. Hizkuntza Politikak zerbait bizia izan behar du, garaietara egokitzen dena, beti aurrera pausuak emango dituen.
- Hizkuntza Protokolo honen garapenean bezala, euskalgintzaren partehartzea ezinbestekoa da. Baina elkarteetako ordezkariak baino haratago doa euskalgintza. Eskoletako irakasleak, euskalgintza arlokoak ez diren elkarteetan ere badira partikulari euskalgintzako kideak diren pertsonak, eta ohiko euskal elkarteetatik haratago, berez euskaldunak ez diren horietan dinamikak aktibatu ditzaketenak. Halere, hizkuntza politikak behin finkatuta, horien garapena betetzen dela kontrolatzeko Jarraipen Batzorde bat beharrezkoa da, Herriko Etxeko ordezkari eta euskalgintzako ordezkarien parte hartzearekin. Continuum bat behar du izan.

Antxeta irratia eskaintza:

Antxeta irratia bere tresna herriko etxeari eskaini dio: Antxeta Irratia Hendaia euskalduntzeko lanean darama 20 urte. Egunero uhinak euskaraz marrazteaz haratago, irati atelierrak ere eskaini izan ditugu eskolatan.

Halere, argi dugu baina, herriko etxearentzat benetako komunikazio tresna bilakatu beharko ginatke, ulertuaz bere ekimenen berri euskaraz ematea (arlo guztietan) frantsesez ematea bezain garrantzitsua dela, eta ez gehigarri bat, edo soilik euskaldunentzako jardura eta ekimenetan. Interes orokorreko gaiak ere euskaraz bermatu ditzakegu Antxeta Irratian. Baina askotan ezinezkoa zaigu, euskaldunak topatzen ez dugulako. Herriko etxearen esku eta zerbitzura dago irratia, elkarteentzako dagoen bezala. Hizkuntza politikak plantan eman, bultzatu, kanpainak egin e.a....

Hortaz, irratia, sinergiak bilatu, zubiak eraiki eta herrian euskararen akuilu lanak egiteko euskarria da, euskara bera delako gure lan tresna.

OHAR ZONBAIT GOGOAN IZATEKO

Hizkuntza politika kontzientea. Neurri eta estrategiaz osatua.

Hizkuntza politika errespetuzkoa. Herriar guztien eskubideak errespetatuko dituen.

Hizkuntza politika konplizea. Herriarrak, eragileak, elkarteak eta herriko etxeak batera egiten dutena.

Zehaztapena	Zein arlori lotua	Zer egin lortzeko?	Lehentasun maila 1etik 5era (1= oso gutxi, 5=oso handia)
Euskarazko arreta bermatzea publikoari begirako zerbitzu guzietan.	Kontratazio politika eta formakuntza	Kontratazioak egitean langilea euskalduna dela ziurtatzea. Langileak euskahalduntzeko bitarteko eraginkorrak jarri.	5
Irandatzeko haurtzaindegian euskarazko eskaintza.	Haur hezkuntza	Haurtzain euskaldunak (elebidunak) kontratatatu.	5
Kirol eskaintza eta kirol azpiegiturretan euskararen presentzia indartu.	Kirola eta aisia	Eusport -ekin harremanetan sartu, haien proiektuaren berri izateko eta elkarlan bat abian jartzeko.	5
Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen baldintzak hobetzea.	Helduen euskalduntzea	Alfabetatu nahi duenari diru-laguntzak eskaini, euskara ikastea doakoa izateko aukera eman.	5
Ahozko jarduera ofiziala zein publikoa o Bilkura publikoa; Hirigintza proiektuen bilkura ideiak, auzo komiteen permanentziak, eragileekin egin bilkurak...	Komunikazioa	Komunikazioa euskaraz bermatuko dela ziurtatu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak martxan jarri. Bat-bateko itzulpenak, grabazioak...	4
Idatzizko komunikazioa: mailak.	Komunikazioa	Euskara zerbitzua egin behar honetarako erabili. Herritarrei zuzendutako emailak euskaratu.	4
Sare sozialak.	Komunikazioa	Euskaraz ere osoki, ez laburpenak.	4
Hizkuntza paisaia: zaintza eta segipena.	Irudia	Euskara zerbitzua indartu arlo honetan lan egin dezan.	4
Itzulpenen zuzentasuna.	Irudia	Beharrezko itzulzailea kontratatatu hau bermatzeko.	3
Merkataritzari begirako sustapena.	Sozioekonomikoa	Euskararekiko sentsibilizazio lana.	3
Elkarteen kanpo komunikazioa.	Erabileraren sustapena	Sentsibilizazio eta komunitate lanketa bat abian jarri. Euskaraldian bezala, baina herrikoia.	2

Proposamena	Zein arlori dago- kio?	Zer egin lortzeko?	Proposamenaren zailtasun maila (1= oso erraza, 5=oso zaila)
Formakuntza indartu eta sentsibilizaioa egin langile eta hautetsien artean euskara erabili eta ikas dezaten.	Formazioa	Langileekin batera erronka txikiak finkatu eta lortzen joan, Euskaraldian bezala.	1
Herritarrek eta elkarteak euskara hutsean zuzenduz gero, herriko etxeak itzulpen zerbitzua eskaintzea.	Erabilera irizpideak	Euskara zerbitzua indartu, behar izanez gero, ballabide pertsonal eta material gehiago ezarri.	1
Hendaiaiko herritarrentzat euskara ikasteko beka sistema bat.	Helduen euskaldun- tzea	Beka sistemaren nolokotasuna aztertu eta mar- txan jarri. Herritarrei jakinarazi.	1
Merkataritzan euskara erabiltzeko kanpaina.	Sozioekonomia	Euskararekiko sentsibilizazio programa bat mar- txan jarri. Hendaia Merkataritzarekin lan egin.	1
Kontratazioetan euskaldunak kontratatzea bilatu be- reziki publikoari begirako postuetan.	Kontratazioa	Kontratatzerako orduan euskaldunak direla ziur- tatzea.	2
HENDAIA EUSKARAZ Hilabetea birformulatu, bai he- rriko etxea eta bai elkarte desberdinak gehiago inplika- tuz. (Adb. Mintzalasai bezalako zerbitzu)	Erabilera; sustapena	Elkarleen eta herriko etxearen arteko lotura zu- zena bermatuko duen espazio bat sortu. Batzorde extramunizipala.	2
Euskal arnagune bat: kafe antzoki bat edo euskal elkar- teak topo egiteko gune bat.	Kultura	Urtean zenbait asteburu Gaztelu aretoa euskara elkarleen esku uztea.	2
Euskararen erabilera segurtatzeko irizpideak zehaz- tu eta bide orria osatu eta aplikatu bereziki kulturaren, hezkuntzan, hirigintzan, gazterian edota herritarren parte hartze ekimenetan.	Erabilera irizpideak	Proposamenean jartzen duena.	3
Euskal komunikabideetan herriko etxearen jardura osoari buruzko berriak euskaraz bermatzeko bideak eta moduak bilatzea eta ezartzea.	Hedabideak	Euskara zerbitzua indartu, behar izanez gero, ballabide pertsonal gehiago kontratatuz.	3
EusLider programan parte hartu eta indartu.	Erabilera; sustapena	Proposamenean dioena.	3
Elkarteei eskatzea haien programazioa elebitan heda- tzea.	Komunikazioa	Euskararekiko sentsibilizazio programa bat abian jarri eta programan sartu.	4



3

**Euskaigintzaren
Kontseiluaren gomendioak
Hendaiako Udalean
hizkuntza politika
garatzeko**

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUAREN GOMENDIOAK

Ondoko lerroetan Euskalgintzaren Kontseiluak Diagnostikoaren dokumentutik bai eta Euskalgintzaren ekarpenetatik ateratako ondorioei esker, gomendioak aurkeztuko ditu. Horretarako, *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentua izango du oinarri.

Ondoko lerroetan beraz, Protokoloaren elementu nagusiak aurkeztu ondoren, lehentasunezko neurri eta irizpideak kontutan hartuz eta egindako diagnostikotik atera diren emaitzak gogoan, gomendioak aurkeztuko ditugu.

Dokumentu honen helburua beraz, Hendaiaiko Herriari hizkuntza-politika baterako gakoak diren elementuak eskaintzea da eta Euskalgintzaren Kontseiluak non ezarriko lukeen azpimarra azaltzea. Ondoren, udaletxeari egokituko zaio beharrezko erabakiak hartzea eta planifikazio eraginkorra ezartzea.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA: GARAPENA HERRIKO ETXEETAN: IRIZPIDE ETA NEURRI NAGUSIAK.

Hizkuntza-eskubideak bermatzeko dituen hizkuntza-politika aurrera eramateko, jarraian jasotzen diren neurriak hartu beharko lirateke kontutan. Hemen laburbiltzen ditugu *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuan aipatzen diren neurri nagusiak.

ZERBITZUA, EUSKARAZ

- Herriko etxeak, Euskal Hirigune Elkargoak egin gisa berean, ofizialki aitortzea euskara lurraldeko hizkuntza gisa.
- Euskarazko arreta eta prozedurak euskaraz segurtatzea, ahoz zein idatziz.
- Herritarrei begirako postuetan langile euskaldunak egotea euskarazko zerbitzua bermatzeko.
- Zerbitzu bat kanpo-kontratazio bidez ematen delarik, hizkuntza-irizpidea ezartzea, euskaraz bermatu dadin.
- Herriko etxearen egitura guzietan hizkuntza-politikako plangintza gauzatu, ebaluatu eta egokitzea.

KOMUNIKAZIO JARDUERA, EUSKARAZ

- Irudi korporatiboa eta kanpo- eta barne-seinaletika euskaraz bermatzea.
- Idatzizko komunikazio-euskarriak eta ingurune numerikoa euskaraz egotea.
- Jarduera ofiziala zein publikoa euskaraz segurtatzea.

LANA, EUSKARAZ

- Euskara dakiten langileei euskaraz lan egiteko aukera ematea, tresnak eta baliabideak ezarriz.
- Langileentzat formakuntza-planak ezartzea lan denboran, bai eta langile euskaldunak kontratatzea ere.

HEZKUNTZA FORMALA: HAUR HEZKUNTZA ETA ESKOLETARAKO KIROL ZERBITZUA

- Herriko etxearen ardurapeko egituretan euskarazko zerbitzua eskaintzea, bai eta euskaraz lan egiteko baliabideak ere.
- Murgiltzearen aldeko sustapen-lana egitea.
- Harrera-protokoloetan haurren eta helduen euskarazko irakaskuntzaren inguruko informazioa banatzea eta sustapena egitea.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK, MUSIKA ETA ARTE ESKOLAK ETA ELKARTE MUNDUA ORO HAR (KULTURA ETA KIROLA BARNE)

- Jarduerak egiten dituzten elkarte edo enpresek, euskarazko eskaintza areagotu dezaten, sustapen-lana egitea.
- Euskarazko zerbitzua eskaintzen duten zentroen identifikazioa egitea eta herritarren esku uztea.

ASIALDIA

- Aisialdi-zentroetan euskarazko eskaintza bermatzea.
- Bestelako aisialdi-guneetan euskarazko zerbitzua bermatzea.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

- Doako eskaintza izan dadin bermatzea.
- Helduen euskalduntzea sustatzea.

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

- Bezero delarik, Herriko Etxeak euskarazko zerbitzua eskatzea.
- Kontratazio mota guztietan hizkuntza-irizpideak egotea.
- Merkataritza-baimenetan hizkuntza-irizpideak zehaztea.
- Merkatarari elkarrekin sustapen lana egitea.
- Merkatuetan produktuen etiketak euskaraz egotea.
- Kanpo iragarkiak euskaratzeko erraztasunak eskaintzea.

HEDABIDEAK

- Herriko etxearen hedabideetan euskararen presentzia berdintasunez bermatzea.
- Tokiko hedabide euskaldunak sustatzea.
- Publizitate instituzionala euskaraz ezartzea.

INGURUNE NUMERIKOA

- Haur eta gazteentzat produktu numerikoak euskaraz eskuragarri egotea.
- Tokiko elkartei sare numerikoa euskaratzeko laguntzak eskaintzea.

KULTURA

- Herriko etxearen kultur zerbitzua euskaraz ematea.
- Kultur programazioan euskararen presentzia herriko ezagutza-tasa baino %10 altuagoa izatea.
- Herriko azpiegiturretan kultur ekimenak antolatzean hizkuntza-irizpideak egotea (komunikazioa euskaraz bermatzea...).
- Euskarazko programazioa ematen duten elkarreentzat laguntza espezifikoak sortzea.
- Zinema-aretoetan euskarazko zinemari gutxienekoak zehaztea.
- Euskaraz sortutako kultura eta kultura unibertsala euskaraz sustatzea.
- Euskaraz sortzen duten eragile eta norbanakoentzat laguntzak egotea.

ONOMASTIKA

- Euskaltzaindia erreferentzia gisa hartzea.
- Herriko izendegia euskaratzea.

Neurri horiek udalerrri bakoitzaren baldintzen arabera aurrera eramateko, hizkuntza plangintza bat osatzea beharrezkoa da. Halaber, plangintza horrek epe labur eta ertainean lehentasunak zehaztuko ditu.

Horretarako, gainera, beharrezkoa izango da diagnostikoa osatzea. Horrela, hutsuneak non dauden identifikatuz gero, herriko etxeetako hautetsiek erabaki dezakete nondik hasi eta non ezarri lehentasun horiek.

HENDAIKO HERRIKO ETXEARENTZAT GOMENDIOAK: LEHENTASUNEZKO NEURRIAK ETA IRIZPIDEAK:

Arestian aipatutako neurriak herriko etxe batean ezartzea ez da egun batetik besterako kontua. Aitzitik, prozesu batean kokatu beharrezkoa da. Hendaiak badu esperientzia horretan; izan ere, 20 urte luzez ibili da hizkuntza-politikaren gainerako neurriak ezartzen eta garatzen.

Ondoko lerroetan, batetik, Euskalgintzaren Kontseiluaren ustez kontuan hartu beharreko lehentasunezko neurri eta irizpide orokorrak azalduko ditugu, eta, bestetik, Hendaiako diagnostikoaren arabera, lehentasunez landu beharreko neurriak zeintzuk diren jasoko dugu.

IRIZPIDEAK: EGINGARRITASUNA ETA ERAGINKORTASUNA

Lehentasunak finkatzeko garaian, egingarritasunaren eta eraginkortasunaren ardatzak etengabe begibistan izan behar dira. Hartzen diren erabaki guztietan aintzat hartu beharko litzateke, erabaki horiek euskararen garapenean duten eragina, bai eta horiek aurrera ateratzeko aukerak (baliabideak, gaitasunak, ahalmenak...) zein diren ere. Gauzak horrela, ikus dezagun atalez atal zeintzuk liratekeen irizpideak eta lehentasunak.

EUSKARAZKO ZERBITZUA INDARTZEKO NEURRIAK

Hendaian, Hobekuntza Kontratuaren bitartez hizkuntza-plangintzak garatu dituzten zerbitzuek langile euskaldunak egoteko eta euskarazko zerbitzua bermatzeko urratsak egin dituzte, formakuntza-planak ezarri eta idatzizko euskarriak euskaldunduz. Bestalde, euskarazko zerbitzua bermatzeko legezko beharkizunik ez badago ere, herriko etxeak euskarazko zerbitzua eskaintzea bere helburu eta engaiamenduetan kokatua du.

Euskarazko zerbitzuari dagokionez, beraz, diagnostikoan agertzen den bezala, Hendaian urrats nabarmenak eman dira. Hobekuntza Kontratuan zehaztu ziren sailetan oinarriak ezarri dira, eta esan dezakegu aukerak badirela **zerbitzu guztiei begirako estrategiak gauzatzen hasteko**, bai eta **euskarazko zerbitzua modu orekatuan eman dadin helburu gisa hartzeko** ere. Izan ere, Hendaiaiko Herriko Etxeak egin dituen urratsak ikusirik, jauzi berri bat eman, eta epe ertain/luzeko helburu gisa jar dezake bere burua, sail bakoitzean uneoro euskarazko arreta bermatuko duen norbait egoteko helburua ezarri.

Horretarako, ondoko urratsak egitea gomendatzen da.

- **Langile euskaldunak ez dauden zerbitzuak identifikatu**, eta horiei begira formakuntza-planak proposatu. Halaber, kontratazio berriak direnean, euskaldunen kontratazioak bultzatu.
- Lanpostuetan postu-fitxak zehazten direlarik, **herritarrek harreman gehien** eta zuzenena duten herri-zerbitzuetako lanpostuek, bai eta haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesuetan zein nagusien zaintzan parte hartzen duten lanpostuek ere, lehentasuna izatea gomendatzen da.
- Prozedurei dagokionez, zerbitzu-eginkizuna duten eremuetan (jendaurrekoak zein gizarte mailakoak) zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko garrantzitsua da sailean eta sailen artean prozedura osoa euskaraz eskaini ahal izateko **'zirkuituak' osatzea; edo gutxienez epe luzeko ikuspegi horrekin jokatzela**. Horretarako, sail horietan guztietan gutxieneko euskara gaitasunak dituzten langileak egotea bilatu beharko da.
- Horretaz gain, **komunikazio zerbitzua** izan da gehien aipatutakoa, bereziki, bere ezaugarri bereziengatik eta hizkuntzaren ikusgarritasunari dagokionez udalean duen errol traktorearengatik. Eremu horretan euskaraz gaituak diren langileak egotea estrategikoa da hizkuntza-plangintzaren garapenerako.
- Idatzizko zerbitzuari dagokionez, irizpideak ezarrita daude, baina ez dira zerbitzu guztietan betetzen. Komeni litzateke **zerbitzu horiek identifikatzea eta dokumentazio finkoa itzultzeko aukera aztertzea**. Horrekin batera, e-mail bidezko harremana ele bitan formalizatzeko, mezua bi hizkuntzetan osatzeko eredua konfiguratu beharko litzateke.
- Horrek itzulpengintzan sortuko dituen beharrak identifikatzera eremango gaitu, eta horien arabera aurrekontuak zehaztu beharko dira. Horrekin batera, itzulpen automatikorako tresnak eta horien erabilerarako formakuntza ematea (itzultzaile neuronalak) aurreikusi daiteke.

KOMUNIKAZIO JARDUERA INDARTZEKO NEURRIAK

Herriko Etxearen kanpo komunikazio idatzian indarra jartzeak ikusgarritasunari lagunduko dio. Kanpo irudia euskalduntzen den heinean, herritarra euskalduntze-prozesu horretako partaide izatera ere gonbidatzen da. Herriko etxearen ahozko komunikazioan ere indarrak jartzea mesedegarria izan daiteke hizkuntza-politikaren azkartzeko.

Zerbitzu-eskaintzari dagokion atalean aipatu dugu, honez gero, **komunikazio zerbitzuan langile euskaldunak egotearen garrantzia**.

Irudi korporatiboari dagokionez, euskarazko seinaleetika gehienez bermatzen bada ere, oraindik, zerbitzu batzuetan ez da orekatua. Komeni litzateke beraz, **identifikazio-lana egitea eta euskaratzeko aurrekontuak zehaztea. Izan ere, seinaleetika orekatua izateak garrantzia berezia hartzen du administrazioaren irudiari begira**. Sistematizazio bat dagoela adierazten da kanpora begira.

Bestalde, aldi baterako paisaia linguistikoan edo seinaleetikan euskarazko ereduak prestatzea aurreikusi daiteke (lanak direnean ezartzekoak adibidez).

Mundu numerikoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du gure bizitzan, eta euskararen presentzia bermatzeko estrategiak gaurdanik pentsatzea berebizikoa da euskararen garapena ziurtatzeko.

- Herritarrei begirako **zerbitzu informatikoak euskaratzeko aukerak** aztertu beharko lirateke Mediatekaren kasuan adibidez.
- Horrekin batera, webgune eta sare sozialak etengabe euskaraz eguneratuak edukitzeko, horrek dakarren lan jarraikiaren ebaluazioa egin eta erantzun ahal izateko beharren identifikazioa egin beharko litzateke, ez dadin alor horretan etenik egon. Adibide gisa, webgunea eta sare sozialak kudeatzen dituen komunikazio arduradunaren parean “hizkuntza bikotea”, hau da langile euskalduna ezartzea irtenbide bat izan daiteke.

Arreta berezia eskaini beharko litzaioke gazteei begirako komunikazioari, eta komunikazio hori euskaraz hedatzeko estrategiak zehaztu.

Horrez gain, hiriko aldezkarian euskararen presentzia indartzeko urratsak emateko bide onean badago jada Hendaia Herriko Etxea.

Interesgarria izan daiteke, halaber, herritarrei asebetetze inkestak egitea euskarazko zerbitzuarekiko balorazioak jasotzeko eta herrian dagoen pertzepzioa neurtzeko.

JARDUERA PUBLIKO ETA OFIZIALEAN EUSKARAREN PRESENTZIA INDARTZEKO NEURRIAK
Sentsibilizazio-lan bat egitekoa da hautetsiei begira, euskara dakitenek erabil dezaten eta ez dakitenek ikasteko urratsak egin ditzaten.

Horretarako, garrantzitsua izango da Herriko Kontseiluaren atxikimendua adieraztea, eta horri begira euskararen aldeko adierazpen publikoak antolatzea.

- Sentsibilizazioan eragina izan dezake, adibidez, Euskal Hirigune Elkargoak 2017an egin adierazpena bezalakoak zeinetan ofizialki Udalak adierazten duen euskara tokiko hizkuntza dela.
- Bestalde, berriki Euskal Herriko hainbat herriko etxek izenpetu duten Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Kartaren tokiko administrazioetarako bertsioa izenpetzeak engaiamendu publikoa adierazten du, eta hautetsi sinatzaileen artean euskara gehiago erabiltzeko urratsak egitera bultzatzen dezake.

Jarduera publiko zein ofizialari begira, garrantzi berezia hartzen du Auzapezaren irudiak. Hortaz, ekitaldi guzietan lehen hitza euskaraz egiteak eragin azkarra izan dezake beste hautetsiengan, bai eta Herriko Etxearen irudiarekiko ere.

Horrez gain, Herriko Kontseiluak hartzen dituen erabakiak ele bitan egotearen garrantzia azpimarratu nahiko genuke. **Herriko Etxearen erabakiak, arrêté direlakoak** euskaratzeko bideak lantzea gomendatzen da. Izan ere, zuzenean herritarrak hunkitzen dituen erabakiak izaten dira, eta askotan herrian karrikan jartzen dira. Ikusgarritasunari begira neurri positiboa eta egokia da, baina bai eta, euskarari garrantzia eta balioa ematen zaiola adierazteko ere.

Azkenik, hautetsiei euskara ikasteko erraztasunak ematea gomendatzen da.

EUSKARAZ LAN EGITEKO BALDINTZAK

Arlo honetako lehen urratsa langileek euskaraz lan egiteko tresnei lehentasuna ematea da. Hona hemen, beraz, lehentasunezko zenbait neurri:

- Barne funtzionamenduko idatzizko euskarriak, arruntenak eta ohikoenetatik hasita, ele bitan ezartzea. Jadanik opor-fitxak euskaraz egiten direnez, interesgarria litzateke euskarri batzuk hartu eta horiek modu progresiboan euskaratzen joatea.
- Laneko ordenadoreetan euskarazko softwarea eta nabigatzailea euskaraz ezartzeko aukera aztertzea zerbitzu informatikoekin, eta horren berri ematea langileei.
- Langile euskaldunak identifikatzen segitzea, euskara erabiltzeko dituzten beharrak jasotzeko eta horiei erantzun ahal izateko.
- Herritarrekin harremana duten zerbitzuetako lanpostuetako langileei euskalduntze formakuntzak lehentasunez eskaintzen segitzea.

- Euskaraz lan egin nahi duten langileei beharrezko gaitasunak eskuratzeko, euskalduntzeko edo euskarazko trebakuntzarako saioak eskaintzea, formazio jarraikiaren baitan. Hendaiaiko Herriko Etxeak jadanik plana ezarria du eta neurri horri esker, epe ertainera langile euskaldun gaituak sortzen dira.
- Langileei hizkuntza ikasteko baldintza egokiak eskaintzea, bai eta langilearen lan-misio gisa kontsideratua izatea ere.
- Langile euskaldunak euskaraz aritzeko dituzten aukerak ebaluatzea, eta horren arabera estrategiak zehaztea, hain zuzen ere, herriko etxearen inbertsioa ikus dezaten, eta ez dadin hizkuntza ez erabili izanagatik gal.

UDALAZ KANPOKO JARDUERA

Herriko etxeak udalaz kanpoko esparruetan eragin dezake euskararen erabilera bultzatzeko. Diagnostikoan hainbat lorpen eta garatzeko dauden puntuak identifikatu dira. Horien artean, azpimarra ezarriko genuke ondoko eremuetan:

Elkarteen eremua:

Euskaraz jarduten duten elkarteak identifikatu eta sentsibilizazio-lana egin beharko litzateke. Ondotik, eragin eremu zabala duten elkarteak, bereziki kirolarekin zerikusia dutenak, identifikatzea gomendatzen da:

- Elkarteek haien hizkuntz-paisaia eta komunikazio idatzia euskaraz hedatu dezaten sustatu. Horretarako Herriko Etxeak baliabideak eskaini beharko lituzke.
- Kirol elkarteekin harremana garatu, euskaldunak dauden identifikatzeko eta euskarazko eskaintza indartzeko bideak aztertze.
- Herriko kirolari euskaldunak identifikatu eta euskararen aldeko kanpainak egin.
- Elkarteetako animatzaileei begira, euskalduntze-planak proposatu motibazio iturri gisa, euskalduntzearen zati bat finantzatzuz adibidez.
- Elkarteen foroa baliatu euskararen presentzia indartzeko estrategiak lantzeko.

Aisia:

- Uda Leku Elkarteak euskarazko eskaintza bermatzen badu ere, lehen mailako haurrei soilik zuzendua da. Gazteei begirako euskarazko udal aisialdi eskaintzak garatzeko estrategiak pentsatu.

Merkataritza eta Turismo arloa:

- Turismo eta Merkataritza bulegoan euskarazko zerbitzua bermatzen da. Merkataritza elkarteekin euskarazko hizkuntz-paisaiaren inguruan sustapen lana egitea gomendatzen da. Horretarako, Herriko Etxeak behar liratekeen baliabideak zerrendatu eta horiek lortzeko zein bide egon daitekeen aztertu beharko luke.
- Merkatariei oinarritzako euskarazko ikastaroak eskaintzeko aukerak aztertu daitezke.
- Ostalaritza elkarteekin kanpainak bultzatu euskararen sustapena indartzeko (menuak euskaraz ezartzeko aukerak...).
- Hondartzaren eremuan euskararen presentzia modu sistematikoan bermatua egon dadin, beharrak identifikatu eta horiei irtenbideak emateko estrategiak pentsatu.

HIZKUNTZA-POLITIKARAKO PLANGINTZA

Lehentasunak non egongo diren aztertu eta erabaki ondoren, hautatutako ildoak aurrera eramateko plangintza zehaztu beharko da. Plangintzak herriko etxeko sail guztietan eragina izan beharko luke eta helburu zehatzak jaso beharko lituzke. Ebaluazioa egiteko aukera eta neurri zuzentzaileak lantzeko parada eskaini beharko luke bestalde.

Plangintza osatzeko eta haren jarraipena egiteko, herriko etxeko euskara zerbitzuak eta Euskara Hautetsi Taldeak Hendaiaiko Euskalgintzarekin harreman jarraikia edukitzea gomendatzen da. Horretarako, herriko etxeak aitortutako elkarlan-gune bat osatzea gomendatzen da. Bide horretan batzorde extramunizipalaren aukera egokia izan daiteke. Euskalgintzak terrenoan diren beharrak identifikatu ditzake eta udala lagundu dezake lehentasunak zehazten. Bestalde herrian indarra duten bestelako eragileekin harremana lantzea interesgarria izan daiteke sentsibilizazio lana bultzatzeko eta bertan egon daitezkeen euskaldun eta euskaltzaleekin lan egin ahal izateko.

NEURRI TRAKTOREAK

Ondoko lerroetan aipatu neurri guztietatik neurri traktoreak zeintzuk izan daitezkeen aipatuko dugu, hau da, eraginkortasun handiena izan dezaketen neurriak eta beste esparru batzuetan eragina izan dezaketenak.

1. Seinaletika finkoa eta herritarrekiko idatzizko euskarri finko guztien euskaratzea. Alegia, euskaratzeko falta diren zerbitzuak identifikatu, aurrekontuak zehaztu eta euskaratu daitezkeen epeak ezarri.
2. Herritarrekiko euskarazko arreta zerbitzu guztietan eman dadin, epe ertain luzeko estrategia zehaztu, helburua izanik, zerbitzu guztietan euskarazko zerbitzua bermatuko duen langile bat egotea.
3. Komunikazio zerbitzuan euskara indartu autonomia osoa izan dezan ele bitan funtzionatzeko.
4. Kanpo jarduerari begira, sustapen estrategiak zehaztu, elkarte munduarekiko eta merkataritza munduarekiko lehentasunez.
5. Egitura eta estrukturari dagokionez, gaur egun teknikari bakar batek kudeatzen du euskara plan-gintza osoa, eta hizkuntza-politikan jauzi berri bat emateko euskara zerbitzuak giza baliabide gehigarria behar lukeela uste dugu. Hortaz, itzulpen lan gehigarriari aurre egiteko eta kanpo jardueraren lanketa egin ahal izateko, beste teknikari baten kontratazioa bultzatu beharko litzateke.
6. Hizkuntza-politikaren diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Euskalgintza, eragileak eta herriko etxea bilduko dituen gunea osatzea, herriko etxearen aitortza izango duena.

ONDORIOA: OINARRIAK BADIRA, JAUZIA EGITEKO GARAIA DA

Hendaiako Herriko Etxeak hizkuntza-politikaren oinarriak ezarriak ditu. Bada garaia jauzi kualitatiboak emateko eta emaitza onak ekarri dituzten bideetan aitzina pausuak egiteko. Orokortasunari begiratzeko aukera badago orain, eta beraz, Hendaiako Herriak euskarazko zerbitzu osoa bermatzeari begira koka dezake bere burua.

Legeak ezartzen dituen mugak kontuan hartuz, orain arte egindakoa sakondu eta orokortzera jo beharko litzateke. Horretarako, gorago aipatu ditugun lehentasunak garatzea gomendatzen du Euskalgintza Kontseiluak. Esan bezala, lehenik egingarri eta eskuragarri dagoen horretan ekinez, egiten dena hobetuz, eta estrategikoak edo traktoreak izan daitezkeen neurriak identifikatu eta bide horiek idekiz



IRUZKINAK



Diagnostikoaren sintesia

ZERBITZUA, EUSKARAZ

• Euskarazko arreta eta prozedurak euskaraz segurtatzea ahoz zein idatziz.

Euskarazko zerbitzua bermatzeko borondate argia: Hogei urtez hizkuntza-politika lantzen.

Herritarrei zuzendutako euskarri orokorrak, euskaraz.

Itzulpenetarako irizpideak, finkatuak.

Herritarren euskarazko eskaerak onartzen dira.

Euskarazko zerbitzua bermatzeko legezko beharkizunik ez dago, borondatezko urratsa da.

Euskarri espezifikoak eta herritar bakar bati zuzendutakoak ez dira euskaratzen.

Hizkuntza-irizpideak ez dira zerbitzu guztietan betetzen.

Herritarren idatzizko eskaerei langileen hizkuntza gaitasunaren arabera erantzuten zaie.

• Herritarrei begirako postuetan langile euskaldunak egotea euskarazko zerbitzua bermatzeko.

Langilea euskalduna den zerbitzu guztietan, ahozko zerbitzua, euskaraz.

LAN-EKO, CPIE eta Hendaia Turismo eta Merkataritza bulegoetan, zerbitzua, euskaraz.

Herritarrei begirako lanpostu guztietan ez daude langile euskaldunak.

Denentzat, GEUZ eta Portuan, euskarazko zerbitzua ez da orekatua.

• Zerbitzu bat kanpo-kontratazio bidez ematen delarik, euskaraz bermatu dadin, hizkuntza-irizpidea ezartzea.

Euskarazko zerbitzua emateko denean kontratuan zehazten da.

Lege eragozpenengatik, ezin dira hizkuntza-irizpideak kontratu mota guztietan ezarri.

• Herriko etxearen egitura guztietan hizkuntza-politikako plangintza gauzatu, ebaluatu eta egokitzea.

Herriko etxeak duela hogeit hamar urte jarri zuen hizkuntza-politika martxan.

Hobekuntza kontratuan parte hartu du 2020 arte eta II zerbitzutan plangintza zehatzak ezarri dira.

Langileen formakuntza-planak indarrean daude oraindik.

Zerbitzu guztiei begirako hizkuntza-plangintzarik ez dago.

Euskararen eremuko gizarte eragileek ez dute hizkuntza-politikan parte hartzen.

KOMUNIKAZIO JARDUERA, EUSKARAZ

• Irudi korporatiboa eta kanpo- eta barne-seinaletika euskaraz bermatzea.

Irudi korporatiboarekin lotutako euskarri finkoak, euskaraz.

Irudi korporatiboarekin eta seinaletikarekin lotutako behin-behineko euskarriak, ez dira beti euskaratuak.

Kanpo- eta barne-seinaletika finkoa eta argi-seinaleak, euskaraz.

GEUZ, LAN-EKO eta CPIE, seinaleetika, euskaraz.

Denentzat eta Portua, seinaleetika ez da euskaraz bermatua.

• Idatzizko komunikazio euskarriak eta ingurune digitala euskaraz egotea.

Udal aldizkaria eta barne aldizkaria, euskaraz.

Prentsa-ohar guztiak, euskaraz.

Komunikazio-euskarriak, euskaraz.

Udalaren webgunea, nagusiki euskaraz.

PuntuEus domeinua eta helbide elektronikoa.

Komunikazio zerbitzuan denbora erdiz ari den langile bakarra da euskalduna.

Udal aldizkarian eta barne aldizkarian elebitasuna ez da orekatua.

Mediatekaren webgunea nagusiki ez da euskaraz. Herritarrei begirako espazio digitala ez da euskaraz, programak ez direlako euskaraz.

Sare sozialak ez dira euskaraz, Euskara Zerbitzuarena izan ezik.

• Jarduera ofizial zein publikoa euskaraz segurtatzea.

Herriko Kontseiluetako bildumak, euskaraz.

Ekitaldi publikoetan, hautetsi euskaldun batzuek, euskaraz.

Auzapezak, batzuetan, hitz batzuk, euskaraz.

Langile euskaldunak, ekitaldiaren arabera, euskaraz.

Euskaraz ari den batzorde bakarra Euskara Taldea da.

Kontseiluetan hautetsi euskaldun batzuk baizik ez dira euskaraz ari.

Herriko etxearen erabakiak (Arrêté) ez dira euskara-tuak.

Ez da erabilera-irizpiderik ezarria ez hautetsi ez eta langileei begira.

LANA, EUSKARAZ

- Euskara dakiten langileei euskaraz lan egiteko aukera ematea, tresnak eta baliabideak ezarriz.
- Langileentzat formakuntza planak ezartzea lan denboran, eta langile euskaldunak kontratatzea.

Hendaiko Udalak langileen formakuntza sustatzen du formakuntza planak finantzatuz lan denboran.

2004tik langileak formatzen dira.

Kontratazio berrietan, euskararen ezagutza eskatzen da (exigé), soilik lanpostuak justifikatzen badu.

Beste lanpostuetan (herritarrekiko arreta barne), euskararen ezagutza baloratzen da (souhaité).

Ez dago euskaraz lan egiteko legezko beharkizunik, egitura eta langileen borondatezko urratsa da.

Langileak euskaraz formatu beharrak gain kostua eragiten dio herriko etxeari.

Euskara ez da lan-hizkuntza gisa erabiltzen oro har

Lanerako tresnak eta barne komunikazioa ez dira euskaraz.

Kargu politikoak ez dira formakuntza-planetan sartzen.

Herritarrekiko arretarekin zerikusia duten lanpostuak ezin dira euskara jakin beharreko lanpostu gisa kontsideratu.

HEZKUNTZA FORMALA: HAUR HEZKUNTZA ETA ESKOLETARAKO KIROL ZERBITZUA:

- Herriko etxearen ardurapeko egiturak: Euskarazko zerbitzua, euskarazko komunikazio jarduera, euskaraz lan egiteko baliabideak.
- Murgiltzearen aldeko sustapen lana egitea.
- Harrera protokoloetan haurren eta helduen euskarazko irakaskuntzaren inguruko informazioa banatu eta sustapena egitea.

Kirol zerbitzuan euskarazko arreta bermatzen da langile euskalduna hor denean.

ATSEMak: Gela elebidunen beharrak, estaliak.

Bi haurtzaindegietatik batean euskarazko zerbitzua bermatua da, bai eta, barne- eta kanpo-seinaletika ere.

Gorputz-heziketako eta igerilekuko klaseak euskaraz bermatzeko bi langile formakuntzan dira.

Murgiltzea sustatzen da.

Hezkuntza eta Haurtzaro zerbitzuan ez da euskarazko zerbitzua bermatzen.

Gorputz-heziketako eta igerilekuko klaseak ez dira euskaraz bermatuak momentuz.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK, MUSIKA ETA ARTE ESKOLAK ETA ELKARTE MUNDUA ORO HAR (KULTURA ETA KIROLA BARNE):

- Jarduerak egiten dituzten elkarte edo enpresek, euskarazko eskaintza areagotu dezaten, sustapen lana egitea.
- Euskarazko zerbitzua ematen duten zentroen identifikazioa egitea eta herritarren esku uztea.

Euskara ardatz duten elkarteak laguntzen dira euskarari egiten dioten ekarpenagatik.

Euskaraz ari diren elkarteak identifikatuak dira eta herritarrek informazio hori eskuragarri dute.

Diru-laguntzak esleitzeko ez dira hizkuntza-irizpideak kontutan hartzen.

ASIALDIA:

- Aisialdi zentroetan euskarazko eskaintza bermatzea.
- Bestelako aisialdi guneeetan euskarazko zerbitzua bermatzea.

Udalak Uda Leku elkarteak diruz laguntzen du euskarazko zerbitzua bermatu dadin.

Ludotekan, zerbitzua euskaraz.

CPIEn jarduerak, euskaraz.

Ama eskola eta lehen hezkuntzako udal aisialdi zentroetan ez da euskarazko zerbitzua bermatzen.

Gazteentzako animazioan eta gazteen aisialdi zentroan ez da euskarazko zerbitzua bermatzen.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA:

- Doako eskaintza izan dadin bermatzea.
- Helduen euskalduntzea sustatzea.

Herriko etxeak AEK elkarteak laguntzen du diru-laguntza bidez eta lokalak eskura ezarri.

Herriko etxeak bere egiturako langileak euskalduntzeko prozedurak martxan ditu.

Ez dago euskara ikasteko diru-laguntza sistemarik herritarrei begira.

EREMU SOZIOEKONOMIKOA:

- Bezero denean Herriko Etxeak euskarazko zerbitzua eskatzea.
- Kontratazio mota guztietan hizkuntza-irizpideak egotea.
- Merkataritza baimenetan hizkuntza-irizpideak zehaztea.
- Merkatarik elkarteekin sustapen lana egitea.
- Merkatuetan produktuen etiketaia euskaraz egotea.
- Kanpo iragarkiak euskaratzeko erraztasunak eskaintzea.

Euskarazko zerbitzu bat emateko denean kontratuan zehaztu egiten da.

Aholkularitza ematen da euskarazko euskarriak sortzeko.

Herriko etxea Euskal Monetaren kide da.

Turismo eta Merkataritza bulegoan ahozko eta idatzizko zerbitzua euskaraz bermatzen dira.

Herriko etxea bezero denean, ez du zerbitzua edo harremana euskaraz eskatzen, ez bada euskararekin lotutako gai baterako.

Ez dago baliabide nahikorik eremu sozioekonomikoan diru-laguntzak edo itzulpen zerbitzua eskaintzeko.

Ezin da merkataritza baimenetan hizkuntza-irizpiderik ezarri.



HEDABIDEAK:

- Herriko etxearen hedabideetan euskararen presentzia berdintasunez bermatzea.
- Tokiko hedabide euskaldunak sustatzea.
- Publizitate instituzionalak euskaraz ezartzea.

Udal aldizkarian euskararen presentzia bermatzen da.

Tokiko hedabideak laguntzen dira.

Publizitate instituzionala elebitan igortzen da.

Euskararen presentzia udal aldizkarian ez da orekatua.

INGURUNE NUMERIKOA:

- Haur eta gazteentzat produktu numerikoak euskaraz eskuragarri egotea.
- Tokio elkarteei sare-numerikoa euskaratzeko laguntzak eskaintzea.

Mediatekan euskarazko produktuak eskuragarri daude.

Ez dago diru-laguntza espezifikorik.

KULTURA:

- Herriko etxearen kultur zerbitzua euskaraz ematea.
- Kultur-programazioan euskararen presentzia herriko ezagutza-tasa baino %10 altuagoa izatea.
- Herriko azpiegiturretan kultur ekimenak antolatzean hizkuntza-irizpideak egotea (komunikazioa euskaraz bermatzea...).
- Euskarazko programazioa ematen duten elkarteentzat laguntza espezifikoa egotea.
- Zinema-aretoetan euskarazko zinema gutxienekoak zehaztea.
- Euskaraz sortutako kultura eta kultura unibertsala euskaraz sustatzea.
- Euskaraz sortzen duten eragile eta norbanakoentzat laguntzak egotea.

Herriko kultur programazioa sortzen den euskarazko produkzioaren araberakoa da.

EKEren Ibilki programan parte hartzen du udalak.

Zinema-aretoetan euskaraz sortzen eta Iparraldean banatzen diren filma guztiak ezartzen dira.

Euskaraz sortutako kultura sustatzen da. Egonaldiak eta ko-produkzioak laguntzen dira. Euskaraz sortzen duten antzerki konpainiak laguntzen dira.

Elkarteei ez zaie haien programazioa euskaraz komunitika dezaten eskatzen.

Diru-laguntza deialdietan ez dira bereizten euskara hutsezko egitasmoak.

Kultur zerbitzuaren webgunea oraindik eraikuntzan da eta helburua elebitan izatea da.

ONOMASTIKA:

- Euskaltzaindia erreferentzia gisa hartzea.
- Herriko izendegia euskaratzea.

Herriko izendegia euskaratua da.

Lan toponimo eta onomastiko sakona egitekoa da.



IRUZKINAK

2

AZTERKETA JURIDIKOA:
Hizkuntza Eskubideak
Bermatzeko Protokolo:
Garapena Herriko Etxeetan
dokumentuaren eta frantses
legediaren arteko
bateragarritasuna

ENERITZ ZABALETA, 2021

Zuzenbide Publikoan Doktorea,

Abokatu-gaia,

Paue eta Aturri Eskualdeko Unibertsitateko
irakaskuntza karguduna

AURKIBIDEA

I. SARTZEA ETA PROTOKOLOAREN HELBURUAK	40
2. PROTOKOLOA: GARAPENA HERRIKO ETXEETAN ETA ZUZENBIDE FRANTSESA	41
3. PROTOKOLOA: GARAPENA HERRIKO ETXEETAN PROPOSAMENEAN ETA FRANTSES ZUZENBIDEAN AURKITZEKO DIREN EZAUGARRIAK	44
3.1. HERRIKO ETXEARI DAGOZKIONAK	44
3.1.1. Zerbitzuak eta izapideak euskaraz	44
3.1.1.a. Herriko etxeak zerbitzuak euskaraz ziurtatuko ditu	44
3.1.1.b. Herriko etxeak herritarrekiko ahozko eta idatzizko arreta euskaraz emanen du	45
3.1.1.c. Herriko etxeak langile euskaldunak izanen ditu zerbitzu horiek euskaraz emateko	46
3.1.1.d. Herriko etxeak kanpo kontratazioetan, esleipenetan eta diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak ezarriko ditu	48
3.1.1.e. Sail/zerbitzu guztiek euskara plana segituko dute	49
3.1.2. Komunikazio-jarduera euskaraz	50
3.1.3. Euskaraz lan egitea	50
3.2. BESTE ESKUHARTZE ESPARRUAK	51
3.2.1. Hezkuntza	51
3.2.1.a. Hezkuntza formala: lehen haurtzaroa, eta lehen eta bigarren mailako irakaskuntza	51
3.2.1.b. Hezkuntza formala: eskolaz kanpoko jarduerak	52
3.2.1.c. Hezkuntza ez-formala: aisialdi-zentroak, kirol-elkarteak eta -federazioak	52
3.2.1.d. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea	52
3.2.2. Arlo sozioekonomikoa	52
3.2.3. Hedabideak eta teknologia berriak	53
3.2.4. Onomastika	53
3.2.5. Kultura	53

I. SARTZEA ETA PROTOKOLOAREN HELBURUAK

Honako ikerketaren xedea da *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan*¹ dokumentuaren garapenaren edukiaren analisia egitea. Dokumentua 2020an aurkeztu zen eta, aitzinetik, 2016an, onartutako *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren* herri mailako lurralde kolektibitateentzako egokitzapena da.

*Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*² (hemendik aitzina Donostiako Protokoloa) 2016an onartu zuten, Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitateetako gizarte zibileko ehun bat eragilek, orduan Europako kultura hiriburu zen Donostian. Protokolo horren helburua da 1996an gizarte zibileko³ hainbat eragilek Bartzelonan onartu Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio eta helburuak, neurri eta adierazle zehatzetan islatzea. Deklarazio hori, UNESCOren laguntza moral eta teknikoarekin diseinaturik, erakunde horren izenpetzera aurkeztu zen. Alabaina, bere onarpenari buruzko elkarriketek ez dute emaitzarik eman, eta gaur egun adierazpen horrek ez du nazioarteko itun baten indar juridikorik. Halere, hizkuntza-komunitateen hizkuntza-eskubideen babeserako nazioarteko erreferentziatzat har daiteke⁴. Erreferentzia balioaren berme dira nazioarteko hainbat pertsonalitatek testuari adierazi dioten sostengua⁵.

Adierazpen horretatik jalgirik, eta bertan biltzen diren helburu eta printzipioak neurri konkretu eta operazional bilakatzeko helburuarekin, hemen ikertu den Protokoloa frantses legedian existitzen ez diren kontzeptuetan oinarritzen da.

Hori da, besteak beste, Donostiako Protokoloaren bigarren zatian (7. or.) aipatzen diren printzipioen kasua:

- Euskaldunen hizkuntza-eskubideen aitortza
- Hizkuntza ofizialaren estatusa euskararentzako
- Hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurri konpontzaileak

Printzipio hauek ospe handiko soziolinguista zenbaitek egin lanetan inspiratzen dira. Lan horiek testuinguru eleanitzetan gertatzen diren diglosia desorekatuen harremanak ikertu, eta diglosia egoeran -hau da euskarak bizi duena Frantziako eta Espainiako estatuetan⁶- dagoen hizkuntza gutxitu baten biziberritzerako politika baten eraikitze zutabe teorikoak eraiki zituzten. Euskal Herri mailan, José Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* eta José María Sanchez Carrión *Txepetxek* ildo horri eutsi zioten. Honela, hizkuntza baten ofizialtasunaren aitortza eta hizkuntza gutxitu bateko hiztunen eskubideak, diglosia egoeran dagoen hizkuntza baten biziberritzea bermatzeko tresnetariko batzuk dira.

1 Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan dokumentua ondorengo lotura honetan dago eskuragarri.

2 Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa dokumentua ondorengo lotura honetan dago eskuragarri.

3 Proiektuaren sortzaile izan ziren PEN Club International eta CIEMEN- Gutxiengo etniko eta nazionalen aldeko Escarré nazioarteko zentroa.

4 Adierazpenak hizkuntza-komunitatea honela definitzen du: «gizatalde oro, lurralde eremu zehatz batean historikoki kokatua dena, -lurralde eremu hori aitortua izan ala ez-, bere burua populu gisa identifikatzen duena eta bere kideen arteko komunikazio naturalerako eta kultur kohesiorako tresna izateko hizkuntza amankomuna garatu duena».

Bestalde, adierazpenak hizkuntza-taldea honela definitzen du: «hizkuntza bera partekatzen duen giza talde oro eta beste hizkuntza komunitate baten lurralde eremuan kokatua dena, baina honen aurrekari historiko parekiderik izan gabe; hori izan liteke etorkin, errefuxiatu, lekuz aldatutako pertsonen edo diasporatako kideen kasua».

5 Deklarazioari beren atxikimendua adierazi dioten pertsonalitateen artean honakoak izenda genitzake: Rigoberta Menchú, Nelson Mandela, Noam Chomsky, le Dalaï Lama, Adolfo Pérez Esquivel, Shimon Peres, Yasser Arafat eta Peter Gabriel.

6 Horretaz, L-V Aracil eta R. Nynioles katalan-valentziar soziolinguisten hizkuntza normalizazioari buruzko lanak, edo J. Fishman soziolinguista israeldar-estatubatuarren diglosiari eta hizkuntza gutxitu baten biziberritzeko hizkuntza-plangintzaren nozioari buruzko lanak aipatu behar genituzke.

L-V Aracil, *Papers de sociolingüística*, 1982; R. Nynioles, *Conflicte lingüístic valencià: substitució lingüística i ideologies diglossiques*, 1969. J. Fishman, «Bilingualism with and without diglossia, Diglossia with and without bilingualism», *Word*, n°15, 1959; *Reversing language shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*, 1991.

Bestalde, printzipio horiek nazioarteko zuzenbidean 1990eko hamarkadan abiatu zen mugimenduekin bat egiten dute. Izan ere, mugimendu horrek demokraziaren ikuspegi pluralistaren alde jotzen du, zeinak gutxiengo etniko, kultural, linguistiko eta populu autoktonoen berezko eskubideak aitortu eta babestuko lituzkeen. Mugimendu hori NBEan eta Europako Kontseiluan nazioarteko hainbat itunen onarpenean islatu da, zeintzuek gutxiengo kultural eta linguistikoetako pertsonen hizkuntza-eskubideak aldarrikatzen eta babesten dituzten⁷. Tresna horiek gutxiengo linguistikoaren legezko aitortza eta komunitate horietako kideen berezko eskubideak aitortzen dituzte, besteak beste administrazioetan beren hizkuntza erabiltzeko eskubidea edo irakaskuntza beren hizkuntzan jasotzekoa.

2. PROTOKOLOA: GARAPENA HERRIKO ETXEETAN ETA ZUZENBIDE FRANTSESA

Soziolinguistikaren pentsamendutik eta nazioarteko zuzenbidetik jalgitzen diren printzipio horiek Donostiako Protokoloa inspiratzen dute, baina frantses zuzenbideari arrotzak eta menturaz kontrajarriak gerta dakizkioke.

Ezen, berdintasun printzipioaz egiten duen irakurketa dela-eta, Frantziak komunitate nazionaletik desberdina den talde orori ez baitio inolako eskubide berezkorik aitortu nahi. Uko egite hori, gutxiengo kultural eta linguistikoek berezkoak zaizkien eskubideak aitortzen dituzten nazioarteko tresnen ez sinatzearekin gauzatzen du⁸. Hizkuntza-eskubideei dagokionez, Frantziako Konstituzio Kontseiluak zehaztu nahi izan du frantses Konstituzioko lehen artikulua uko egiten diola «*jatorri, kultura, hizkuntza edo erlijio komunitate gisa definitzen den ezein talderi eskubide kolektiborik aitortzeari*»⁹. Gainera, «*Errepublikaren hizkuntza frantsesa dela*» dioen frantses Konstituzioko bigarren artikulua ez du onartzen norbanakoek «*frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabiltzea administrazio eta zerbitzu publikoekin dituzten harremanetan*»¹⁰. Beraz, frantses Konstituzioak frantsesa ez den beste hizkuntza bateko hiztunei hizkuntza-eskubiderik aitortzea errefusatzeko du, baita frantses mendeko lurraldeetako hizkuntza-komunitateei berezkoak zaizkien lurralde hizkuntzen kasuan ere. Ondorioz, euskal hiztunek ezin dute beren hizkuntza-eskubideen aitortzarik ukan Frantzian.

Euskararen ofizialtasunari dagokionez, Frantziak hizkuntza ofizial bakarreko eredu linguistikoa diseinatzea hautatu du. Frantses hizkuntzaren ofizialtasunaren aldarrikapena tradizio historiko eta politiko zahar baten emaitza da. Tradizio hori zuzenbide positiboan formalizatu zuten 1992an Konstituzioa berritu eta bigarren artikuluan honakoa txertatu zutenetik: «*Errepublikaren hizkuntza frantsesa da*». Txertakin horrek ofizialtasunaren ondorioak dakartzatza, ezen aginte publikoek frantsesa erabiltzeko beharmendua egiten, eta aldi berean hizkuntza horretan idatziak diren dokumentu ofizialei legezko indarra ematen baitie. Konstituzio Kontseiluak frantsesaren erabiltzearen arau orokorra honela zehaztu zuen: «*frantsesa erabiltzera behartuak dira pertsona moral publiko eta pertsona pribatu*

⁷ **NBEari dagokionez**, ikus Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituneko 27. artikulua, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 30. artikulua, Gutxiengo Nazional edo Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako Kide diren Pertsonen Eskubideei buruzko Deklarazioa. Populu autoktonoei dagokionez, ikus Populu Autoktonoen Eskubideen Adierazpena. Azkenik, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko bigarren artikulua Deklarazioak aitortzen dituen eskubideen gozatzean hizkuntzarengatik diskriminazio ezaren printzipioa aldarrikatzen du.

Europako Kontseiluari dagokionez, ikus Gutxiengo Nazionalen Babeserako Esparru-hitzarmenak. Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak helburu horiei jarraitzen diete, nahiz eta mekanika desberdina izan. Izatez, helburua ez da eskualde hizkuntzetako hiztunen eskubide subjektiboak aitortzea, bai ordea, eskualde hizkuntzak babesteko eta sustatzeko helburuarekin, Estatu-aldeei derrigorrez bete beharreko neurri katalogo baten proposatzea.

Europako Segurtasun eta Lankidetzaren Antolamenduari, ESLA, dagokionez, ikus Haga eta Osloko Gomendioak.

⁸ Frantziak, interpretazio erreserbak argudiatuz, NBEn eskubide zibili eta Politikoen Itunaren 27. artikulua eta Haurren eskubideen Nazioarteko Hitzarmenaren 30.a baztertzea erabaki du. Erreserba horiek honela adierazten ditu: «*frantses Gobernuak, Konstituzioko 2. artikulua dela-eta, Errepublikari dagokionez adierazten du ez dagoela 27 [eta 30] artikulua aplikatzerik*». NBEko Giza Eskubideen Batzordeak, zeinak Estatu-aldeek NBEko Ituna errespetatzen dutela zaintzeko eginkizuna duen, jarrera hori deitoratu eta Frantziari eskatu zion ez zezala, gutxiengo linguistikoetako pertsonen berezko eskubideen aitortzea oztoka dezakeen berdintasun printzipioaren irakurketarik egin.

⁹ Konstituzio Kontseiluaren 1999ko ekainaren 15eko 99-412 DC (Kons. 6).

¹⁰ Konstituzio Kontseiluaren 1999ko ekainaren 15eko 99-412 DC (Kons. 7).

tuak, zerbitzu publikoko eginkizuna betetzen dutenean»¹¹. 1994ko agorrilaren 4ko legeak frantsesaren erabiltzeko beharmendua zehaztu, eta honakoa erantsi zuen «frantsesa irakaskuntzaren, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza da»¹². Ondotik, printzipio hori frantsesa erabiltzeko hainbat beharmendutan garatu dute, legeak markatzen dituen lau arloetarik bakoitzean.

Gai horretan, botere konstituziogilearen eta legegilearen hautua argia da: frantses hizkuntza da Frantzia hizkuntza ofizialaren estatus juridikoa duen bakarra. Beste hizkuntzek, besteak beste 2008tik frantses Konstituzioko 75-1 artikuluan biltzen diren “eskualde hizkuntzek”, ez dute horrelako estatusik.

Ondorioz, Donostiako Protokoloaren garapenerako printzipioek, bereziki euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak aitortzea eta bermatzea, eta euskararentzako hizkuntza ofizialaren estatusa bilatzea helburu dutenak, indarrean den frantses lege positiboarekin talka egiten dute.

Donostiako Protokoloa idatzi zutenek errealitate hori ezaguna zuten, baina hizkuntza-eskubideak aitortu eta babes-teko, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideko tresnen printzipioekin bat egingo lukeen dokumentua osatu nahi izan zuten. Helburua ez zen Estatu bakoitzak hizkuntza-aniztasunaz egin zituen konstituzio-hautuei egokituriko dokumentu baten egitea, bai, ordea, maila orotako aginte publikoek – estatua, eskualdea eta bertakoa – hizkuntza-eskubideak aldarrikatzen dituzten nazioarteko testuek finkatu helburuak betetzeko neurrien gida bat egitea.

Oraintxe aipatu Donostiako Protokoloaren eta frantses lege positiboaren arteko bateragarritasun ezak ez du baitzepadara erran nahi Protokoloan biltzen diren neurri guztiak zuzenbide horren aurkakoak direnik. Izan ere, neurri batzuen aplikatzea baliagarri izan daiteke Donostiako Protokoloaren helburua betetzeko, hots, euskal hiztunen eskubideak ahal bezain ongi bermatzeko, frantses zuzenbide positiboarekin bateragarri izanez.

Asmo horretan, alegia, frantses estatupean diren euskal udalek aplika lezaketen dokumentua egiteko xedearekin, osatu zuen Euskalgintzaren Kontseiluak Donostiako Protokoloaren egokitzapen bat. Lan horren egiteko, baitetik Euskal Hirigune Elkargoan, Baionan eta Miarrizten burutu hizkuntza-politikak, eta bestetik soziolinguista eta jurista adituen ekarpenak erreferentzia hartu zituen, eta herrien eskumenei eta frantses zuzenbide positiboaren eskaerei egokituriko dokumentua osatu zuen. Dokumentu hori 2020an aurkeztutako **«Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan»** da, honako ikerketaren subjektua. Donostiako Protokoloak finkatu helburuen errespetua eta frantses legediaren beharmenduak bateratzeko ariketa delikatu eginez, dokumentuak Donostiako Protokoloaren helburuak herriko etxeen alorrean egikaritzeko neurrien bertsio egokitua proposatzen du.

Eta neurri horien bateragarritasun-azterketa egiteko, lehenik eta behin lege-esparruak ezartzen dituen legegaltzasunak eta -baimenak landu behar ditugu. Hortaz, gaur egungo zuzenbide frantsesak bi marra gorri zeharka ezin finkatzen dituen arren (euskaldunentzako zuzenbide subjektiborik ezin da onartu, eta frantsesaren ofizialtasuna ezin da zalantzan ezarri), “eskualde hizkuntzen” aldeko adierazpen-eremuak finkatzen ditu. Baimen horietan oinarrituko da, beraz, bateragarritasun-azterketa. Gaur egun, frantses legeak adierazpen zirrikitu batzuk irekitzen dizkio euskarari eremu publikoan, eta lurralde kolektibitateek bere aldeko politika publikoak garatzea zilegiztatzen du.

Euskararen erabilpenari dagokionez, Konstituzio Kontseiluak konstituzio horretako bigarren artikuluko eskaerak eta Frantziako Errepublikako Gizakiaren eta Herritarraren eskubideen Adierazpeneko hamaseigarren artikuluko adierazpen askatasunaren printzipioa bateratu izan ditu, zehaztuz arau orokor gisa frantsesaren erabilpena behartua izanik ere, *«Konstituzioko 2. artikulua ez dituela itzulpenak debekatzen; bere aplikazioak ez duela adierazpen eta komunikazio-askatasunak irakaskuntza, ikerketa eta ikus entzunezko komunikazio arloetan duen garrantzia gaitzetsi behar»¹³.*

Bateratze horrek elebitasunari atea irekitzen dio, euskara itzulpenen bidez esparru publikoan orokorki erabiltzeko baimenarekin, eta bereziki irakaskuntzan, ikerketan eta hedabideetan. Adierazpen-askatasunaren printzipioak, halaber, euskara ahazkoan erabiltzea baimentzen du orokorki administrazioan *«inplikatuak diren pertsonen adostasunarekin, baldin eta bertako zirkunstantziek edo interes orokorrak hala justifikatzen badute»¹⁴. 1994ko agorrilaren 4ko frantses legeak baimen orokor horri zehaztapena ekartzen dio: «honako legearen xedapenak Frantziako*

11 Konstituzio Kontseiluaren 1999ko ekainaren 15eko 99-412 DC (Kons. 6).

12 Agorrilaren 4ko 94-665 Legea, frantses hizkuntzaren erabilpenari buruzkoa, 1. artikulua.

13 Konstituzio Kontseiluaren 1999ko ekainaren 15eko 99-412 DC (Kons. 8).

14 J.E. Schoettl, «Langue française», *Actualité juridique de droit administratif*, 1999, p. 576.

eskualde hizkuntzen lege eta araudien kalterik gabe aplikatzen dira, eta ez dute hizkuntza horien erabilpena ukatzen»¹⁵.

Ildo horretatik, 2007an Euskararen Erakunde Publikoko Lehendakariarekin batera izenpetu gutun batean, Pirinio Atlantikoetako Marc Cabane Prefetak Ipar Euskal Herriko auzapezei honakoa adierazi zien: «*euskara frantsesaren ondoan erabil daiteke dokumentu desberdinetan, zigiluetan, edo komunikazio-euskarri ofizialetan, jakinez frantsesez idatzitakoek soilik dutela lege indarra*», eta ondotik gehitu zuen «*euskararen presentzia sustatu nahiko lukeen herriko etxe orok libreki finka ditzakeela bere hautu eta praktikak, euskararen erabilpen partzialetik hasi eta elebitasun orokorreraino*».

Hortaz, euskara idatzizko nola ahozko komunikazioetan sar badaiteke ere, bi baldintza bete behar dira:

- Derrigorrezkoa den frantsesaren osagarri izan behar du euskarak, eta ez ordezkotzat (besteak beste idatziztat).
- Hautuzkoa izan behar du eta ez zaie inposatu behar, ez erabiltzaile ezta langile publikoei ere.

Frantses jurisprudentziak, Konstituzio Kontseiluak eta Estatu Kontseiluak bereziki, “eskualde hizkuntzaren” erabilera hautazkoa izan behar duela oroitarazi zuen, konstituzionalki onartua izatekotan, bereziki irakaskuntza arloan¹⁶.

Bestalde, zuzenbide positiboaren azken bilakaerek euskara esparru publikoan erabilia izateko sustapen aktiboko politika zilegiztatu dute, beti ere nahitaezkoa den frantsesaren erabileraren osagarri. 2008ko uztailaren 23an frantses Konstituzioko 75-1 artikulua onartu zen, eta horrek zentzu horretan biratze nabarmena adierazi zuen «*eskualde hizkuntzak Frantziako ondarean sartzen direla*» dioenean. Artikulu horrek lurralde kolektibitate edo erakundeei buruzko XII. atalean txertaturik, azken urteotan “eskualde hizkuntzen” sustatzeko eta babesteko inplementatu diren politika publikoen zimendua osatzen du. “Eskualde hizkuntzen” patrimonializazioak ez du, bizkitartean, euskararen erabilpenaren lege balio batean oinarritutako ko-ofizialtasunerako urraspidea justifikatuko, ez eta euskaldunen hizkuntza-eskubideak aitortuko ere. Zentzu horretan ulertu beharra dago frantses Konstituzio Kontseiluaren 2011-130 QPC erabakia, zeinak zehaztu zuen artikulu horrek «*ez duela Konstituzioak bermatzen duen eskubide edo askatasunik ezartzen*»¹⁷. Beraz, Kontseilu horren 1999ko 99-412 DC erabakiak osoki indarrean segitzen du, non “eskualde hizkuntza” baten erabiltzeko eskubiderik aitortzea ukatzen duen.

Haatik, Konstituzioko 75-1 artikulua Frantziak hizkuntza-aniztasunaz duen ikusmoldearen bilakaera erakusten du, eta elebitasuna sustatzeko xedea duten politika publiko berrien oinarri konstituzionala osatzen du. Izan ere, 2008ko “eskualde hizkuntzen” ondareztatzearen ildo beretik, botere legegile den Asanblea Nazionalak lurralde erakundeei egiazko eskumena eman zien “eskualde hizkuntza” horien sustapen eta babeserako 2014 eta 2015ean. Hori da, hain zuzen, MAPTAM deritzon 2014ko urtarrilaren 27ko 2014-58 frantses legea¹⁸, zeinak «*eskualde hizkuntzen sustapen*» eskumena eskualdeei ematen zien, lurralde erakunde horiek (Eskualdeak) gai horretan «lider» bilakatuz, beste mailetakoko erakundeen eskumenei kalterik egin gabe. Frantses Errepublikaren antolaketa berria agintzen duen 2015eko agorrilaren 7ko (NOTRe) legea¹⁹ «*eskualde hizkuntzen sustapen*» eskumena berretsi eta lurralde kolektibitate guztien arteko eskumen partekatua zela agindu zuen.

Lege horiek frantses Konstituzioko 75-1 artikulua ematen duen eskumena konkretu bilakatzen dute, “eskualde hizkuntzak” frantses ondareko elementu bezala kontsideratuz. Ezen, ondare batek suposatzen baitu babestu eta sustatu behar dela iraun dezan eta heda dadin. Frantses Konstituzioan ondarea bezalako elementu bat sartzeak babes eta sustapen berezia dakar, zeren Konstituzioa lege sistemaren funtsezko araua baita. Honela, konstituzioak “eskualde hizkuntzen” babesa eta sustapena agindurik, betebeharrak hau lurralde erakundeena den babes eta sustapen eskumen batekin zehaztu du Asanblea Nazionalak.

15 Agorrilaren 4ko 94-665 Legea, frantses hizkuntzaren erabilpenari buruzkoa, 21. artikulua.

16 Konstituzio Kontseiluaren hainbat erabaki bide horretatik doaz: 1991ko azaroaren 9ko 91-290 DC (Kons 37), 1996ko apirilaren 9ko 96-373 DC (Kons 91), 2002ko urtarrilaren 17ko 2001-454 DC (Kons. 25); 2004ko otsailaren 12ko 2004-490 DC (Kons. 70).

17 Konstituzio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 20ko 2011-130 QPC lehentasunezko konstituzionaltasun-arazoa (Kons. 4)

18 Legearen jatorrizko izenadapena: LOI n° 2014-58 du 27 janvier 2014 de modernisation de l'action publique territoriale et d'affirmation des métropoles.

19 Legearen jatorrizko izenadapena: LOI n° 2015-991 du 7 août 2015 portant nouvelle organisation territoriale de la République.

Frantsesa eta “eskualdeko hizkuntzen” arteko oposizioa baino, frantses zuzenbideak osagarritasuna eraiki du progresiboki horien artean. Frantsesak hizkuntza ofizial bakarra izaten segitzen duen eta bere erabilpena derrigorrezkoa den arren, euskararen ikastea eta erabiltzea ez dira frantsesaren estatusarekin kontrajarriak, baizik eta osagarriak. Are gehiago, euskararen sustapena lurralde kolektibitateen ardurako eginkizun bilakatu da.

Ondorioz, *Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuak biltzen dituen neurrien azterketa egiteko, frantsesaren estatusa eta derrigorrezko erabilpena finkatzen duten lege printzipioak kontuan izan behar dira, baina aldi berean, frantsesaren osagarri gisa “eskualde hizkuntzen” erabilpena baimentzen, eta lurralde erakundeei hizkuntza horien babesa eta sustapena agintzen dieten lege printzipio berak kontuan izan behar dira.

3. PROTOKOLOA: GARAPENA HERRIKO ETXEETAN PROPOSAMENEA ETA FRANTSES ZUZENBIDEAN AURKITZEN DIREN EZAUGARRIAK

Ikerteta honetan lantzen diren euskararen aldeko neurriak *Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan* dokumentuaren hirugarren zatian aurkitzen dira (13. orritik aurrera). Neurriok bi atal nagusitan bilduta daude, lehena herriko etxeari dagokiona (14-19 orriak), eta bigarrena herriko etxeen beste eskuhartze arloei buruzkoa (19-27 orriak).

3.1. HERRIKO ETXEARI DAGOZKION NEURRIAK

Herriko etxearen eremu organikoan garatu beharreko hiru neurri mota aurkeztuak dira: euskara herriko etxeko zerbitzuetan eta administrazio izapideetan txertatzea (2.1.1), herriko etxearen euskarazko komunikazioa (2.1.2) eta euskararen erabilpena herriko etxeko lan ingurunean (2.1.3).

3.1.1. Zerbitzuak eta izapideak euskaraz

Euskara txertatzeko neurriak bost azpi-ataletan bilduak dira. Azpi-atal bakoitzean aplikatu beharreko hainbat neurri zehatz azaltzen dira.

3.1.1.a. Herriko etxeak zerbitzuak euskaraz ziurtatuko ditu

Lehen galdera litzateke herriko etxe batek ematen dituen zerbitzu guztiak euskaraz ematen dituela segurtatzeko helburuaren inguruan. Berez, helburu hori ez da gaur egungo zuzenbidearen aurkakoa, baldin eta baldintza batzuk errespetatzen badira. Lege-esparruren hastapeneko analisiak erakusten du frantsesaren erabilera derrigorrezkoa izan behar dela pertsona moral publiko batentzat. Baina, derrigortasun horrek ez du kentzen euskara erabil daitekeela, osagarri gisa. Orduan, zerbitzuak euskaraz emateko helburua herriko etxearen urraspide elebidun orokor batean kokatzen bada, indarrean den legediarekin bat dator. Euskararen erabilpenak ez du frantse-sarena ordeztu behar, baizik eta osagarri, bigarrena derrigorrezkoa baita.

Gainera, euskararen erabilerak akuilagarria izan behar du, inolaz ere nahitaezkoa. Beraz, herriko etxea engaia daiteke euskara bere zerbitzuetan txertatzera, baina helburu horren gauzatzeko, herriko langileek beren zerbitzuetan euskara erabiltzea beren borondatez eta atxikimenduz egin behar dute. Zerbitzu hartzaileekin euskaraz komunikatzea ere baimendua da, baldin eta langilearen eta hartzailearen borondatezko urraspidea bada.

- *Euskal Elkargoaren irizpidea segituz, herriko etxeak ofizialki aitortuko du euskara lurraldeko hizkuntza gisa.*

Neurri honek Euskal Hirigune Elkargoaren 2018ko ekainaren 23ko erabakiari erreferentzia egiten dio, non «euskara eta gaskoia bere lurraldeko hizkuntza bezala aitortzen dituen, frantsesaren alboan».

Erabaki hori oraindik indarrean da eta frantses Estatuko ordezkariak egin legezkotasun kontrola gainditu du, prefekturako zerbitzuek ez baitute erabakiaren kontrako errekurtsorik bideratu.

Beraz, herriek antzeko erabakia har dezakete, baina beren lurraldeari mugatuz. Horretarako, gomendagarria litzateke 2018an Euskal Elkargoak hartu erabakiaren testu osoa kontuan hartzea, ezen erakundearen anbizioa ederki adierazten baitu²⁰.

- *Zerbitzuak eta administrazio-izapideak euskaraz edukitzera engaiatuko da.*

Izapide-nozioa ez da oso zehatza. Termino horrek erabiltzaileek edo hartzaileek eskura izanen dituzten administrazio-dokumentuak izendatzen baditu, neurria legezkoa izan dadin, ezinbestekoa izanen da dokumentu horiek frantsesez ere eskuragarri izatea. Arlo horretan, erakunde publikoek askatasun handia dute, euskara modu zabalean txerta baitaiteke, erabilpen murriztenetik hasi eta neurriak suposatzen duen elebitasun orokorreraino.

Bigarrenik, administrazio-izapidea herriko etxeko langilearen eta erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioa izan daiteke. Kasu horretan, langilea frantsesa erabiltzera behartua izanik ere, euskararen erabilpena legez onargarria da, baldin eta erabilpen hori hartzailearen borondatez egiten bada eta ez hau, ezta langilea ere, ez badira euskara erabiltzera behartuak. Euskararen hautuzko erabilpenarekin bateragarria da ere herriko etxe batek euskarazko harrera antolatzeke ezar dezakeen urraspidea, non langile euskaldunak identifikatuko lituzkeen, zerbitzu hartzaileek identifika ditzaten, baina beti ere langile horren onespenerarekin.

- *Herriko etxeak ez du euskara beste edozein hizkuntza baino gutxiago balioztatuko, izan ematen dituen zerbitzuetan, nola komunikazioan, ez eta langileekiko harremanetan ere.*

Euskararen balioztatze-nozioa juridikoki aski lausoa da. Kontua euskararen erabilpen moduak beste hizkuntzekiko, eta bereziki frantsesarekiko, erkatzea baldin bada, ez dago indarrean den zuzenbidearekiko kezka nagusirik. Izatez, gaur egungo lege-esparruak frantsesaren erabilera behartzen du komunikazio-euskarrietan, zerbitzu publikoa eskaintzen den orotan, nola erabiltzaileekiko ahozko komunikazioan. Baina, nahitaezko erabilpen horrekin batera, euskararen erabilpena ere baimentzen du, beti ere hautuzko izaera errespetatuz.

Bi baldintza horiek betetzen badira, orduan euskararen erabiltzeko askatasuna badago. Frantsesaren eta euskararen arteko berdintasun batean oinarritzen den elebitasun integrala ezartzea posible da, baina, frantseseko bertsioak soilik izanen du lege indarra, eta ondorioz horrek bakarrik emanen dio erabiltzaileari eskubidea edo beharmendua. Gaurko frantses zuzenbide positiboak ez ditu aipatzen elebitasunak komunikazio-euskarrietan izan ditzakeen modalitateak. Honela, izan tipografiak, letra neurria, euskarria (euskarri elebidun bakarra, hizkuntza bakoitzari euskarri bana...), elebitasun konkrituaren antolaketa erakunde publiko bakoitzaren eskumenekoa da. Beraz, herriko etxeak berdintasunezko elebitasun baten hautua egin dezake frantses legea urratu gabe.

- *Aurreko neurriak herriko etxearen eskumeneko erakundeetan ere aplikagarri izan daitezke.*

Herriko etxearen eskumeneko egitura-nozioa ere argitu behar da. Herri baten antolaketa instituzionalean kasu desberdinak egon daitezke. Herriko etxearen ardura zuzenpean diren egiturak barne zerbitzuak dira, eta ez dute berezko pertsonalitate juridikorik. Aginte gorena auzapezarena izanik, honek erabakitako neurriak derrigorrez bete behar dituzte.

Ez da berdintza gertatzen herriko etxeari zuzenki atxikiak ez zaizkion zerbitzuekin, herriko etxearenetik bereizia den pertsonalitate morala dutenean. Entitate horiek zuzenbide publikokoak izan daitezke (tokiko establezimendu publikoak...) edo pribatukoak (elkarteak, ekonomia mistoko sozietateak...) eta berezko pertsonalitate morala dutenez, legezko autonomia ere badute. Ondorioz, herriko etxeak ezin die legez inposatu bere baitan hartu duen neurriarik. Aldiz, entitate horietako erabakiguneetan herriko etxea ordezkatzeko dutenek, entitate horietan protokolo baten onartzeko edo herriko etxeak erabaki neurrien ezartzeko sustapen lana egin dezakete. Dena den, erabakia entitatearen erabakiguneak hartuko du.

3.1.1.b. Herriko etxeak herritarrekiko ahozko eta idatzizko arreta euskaraz emanen du

Zehaztu behar dugu euskara komunikazio-euskarri, dokumentu eta erabiltzaileekiko harremanetan txertatzea

²⁰ Euskal Hirigune Elkargoko 2018ko ekainaren 23ko erabakia. Ondorengo lotura honetan dago eskuragarri.

indarrean den frantses zuzenbidearekin bat datorrela, baldin eta honako bi baldintzak betetzen baditu:

- *Euskararen erabilpena frantsesarenaren osagarri gisa sartuko da, frantsesak soilik duelarik derrigortasun izaera eta lege balioa.*
- *Euskararen erabilera ezin zaio inposatu ez langileari, ezta erabiltzaileari ere.*

Honako baldintza bikoitza betez gero, elebitasuna txerta daiteke. Testuek ez dutenez elebitasun horren txertatzeko modalitate konkreturik ematen, herriei dagokie trenkatzea (euskarri bakarrean bi bertsioak, bertsio bakoitzeko euskarri bat erabiltzaileak hauta dezan, tipografiari dagokionez elebitasun simetrikoa ematea, irudi arauak... edo alderantziz, frantsesaren aldeko elebitasun asimetrikoa ezartzea...).

- *Idatzizko euskarriak euskaraz emanen dira: inprimakiak, deialdiak, jakinarazpenak, deliberoak ...*
- *Herriko etxearen informatika aplikazioak eta on-line zerbitzuak euskaraz eskainiko dira.*
- *Ahoz ere, euskarazko zerbitzua segurtatuko da: arreta-guneak, erantzungailuak, bozgorailuak...*
- *Izapideak bideratzeko dokumentuak euskaraz emanen dira.*

Neurri horiek frantses zuzenbidearekin bat datoz, baldin eta frantsesezko bertsioak eskura badaitezke, edo frantsesa dokumentu elebidunetan presente dauden, honek soilik baitu lege indarra. Gainera, ahozko harremanetan, langile eta erabiltzaileen borondatearen printzipioa errespetatu behar da.

- Herriko etxeko langileak zerbitzua euskaraz ematerik ez badu, egoerari erantzuteko aterabideak bilatuko dira, erabiltzaileak zerbitzua euskaraz ukan dezan eperik laburrenean.
- Herriko etxeak euskaraz egin nahi duen herritarrari hautua bermatzeko bitartekoak jarriko dizkio, itzulpenak, etab.
- Zirkuituak osatuko dira departamentu eta sail guztietan herritarrak herriko etxearekin abiatu duen prozedura euskaraz egin dadin.

Neurri horiek herriko etxeko zerbitzuen barne antolaketari dagozkio gehienbat, eta ez dute legezko zailtasunik ematen, baldin eta erabiltzaileei euskarazko zerbitzua emateko, ezarri den antolaketak langileen borondatea errespetatzen badu. Hau da, bereziki, euskarazko zirkuituen kasua non langileek zirkuitu horietan parte hartzeko borondatea izan behar duten.

3.1.1.c. Herriko etxeak langile euskaldunak izanen ditu zerbitzu horiek euskaraz emateko

Herriko etxeko langileen hizkuntza-gaitasunaren gaia kontuz hartzekoa da. Herriko zerbitzuetan elebitasuna luze eta zabal txertatzeak langileen hizkuntza-gaitasunen balioztatzearen gaia dakar, eta horrek legezko galdera pausatzen du: herritarrek enplegu publikoetarako duten aukera-berdintasunaren printzipioarena hain zuzen, beren jatorriarengatiko bereizketarik izan gabe.

Langileen hizkuntza-gaitasunak bi aukeratan har daitezke kontuan:

- Formakuntza jarraikiaren bidez gaitasunak eskuratzen dituztenean.
- Langilea kontratatzerakoan hizkuntz gaitasunak kontuan hartzen direnean.

Jadanik postuan dauden langileen formakuntza jarraikiari dagokionez, ez dago legezko zailtasun berezirik. Hizkuntza-formakuntzak garai batez formakuntza katalogoetatik kanpo zeuden, hala nola CNFPT erakundeko katalogotik, baina progresiboki txertatu dituzte Euskararen Erakunde Publikoarekiko partaidetzen ondorioz. Lurralde kolektibitate ugarik eskaintzen dituzte euskarazko formakuntzak beren langileentzat.

Zailtasun bakarra da formakuntzara joateak hautuzkoa izan behar duela eta borondatezkoa. Herriko etxe batek formakuntza horietara joaten diren langileen kopurua emendatzeko helburua finka dezake, baina ezin du, ordea, euskara formakuntzarik jaso nahi ez duen langilerik behartu. Formakuntza-zikloen bukaeran langileak egiaztapen probetara joan daitezke, hizkuntza-maila jakin bat erdietsi dutela frogatzeko (B2, C1 eta bestelako egiaztagirak).

Bestelako kontua da enplegu publiko baterako hautagaiei hizkuntza-maila jakin bat irizpide bezala ezartzea. Konstituzioak herritarrei enplegu publikoetarako sarbide-berdintasunaren printzipioa aitortzen die, legearen au-

rean duten berdintasun-printzipioaren artikulua berean. Honela, Frantziako Gizaki eta Herritarren Eskubideen Adierazpeneko seigarren artikulua honela dio: «*Bere iritziz [legearen iritziz] Herritar guztiek eskubide berak dituztenez, funtzio, leku eta enplegu publiko guztietarako sarbide bera dute, beren gaitasunen arabera, eta beren bertute eta talentuez aparte inolako bereizketarik egin gabe*». Artikuluak herritarrek enplegu publikoetarako duten sarbide-berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen du, baita beren artean bereizketa egiteko aukera ere, baina soilik beren bertute eta talentuen arabera. Hortaz, bertute eta talentu iritziez aparte, herritarren arteko bestelako bereizterik ezin da egin.

Hautagaien arteko bereizketa oro debekatzen duen printzipio orokorrari gehitu behar zaio konstituzio- eta lege-esparruak bereizketa oro absolutuki debekatzen duen irizpide sorta finkatu dutela. Hori da, hain zuzen, Konstituzioko lehen artikuluan ematen diren jatorri, arraza eta erlijio irizpideen kasua²¹ 19. Hori ere bada 1983ko uztailaren 13ko legeak funtzionarioen eskubide eta betebeharrari buruz ezartzen dituen hamabost irizpideen kasua²².

Kontua da jakitea ea euskararen menperatzea bertute edo talentu bezala kontsidera daitekeen, eta horrek gaitasun objektiboa osa dezakeen hautagaien arteko enplegu publikoetarako bereizketa baten egiteko, ala alderantziz, ea gaitasun-menperatze horrek enplegu publikoetarako sarbidean herritarren arteko diskriminazio debekatu osatzen duen.

Konstituzio Kontseiluak gaia jorratua zuen, Konstituzioa eta Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren arteko bateragarritasuna erkatu zuenean. 412-99 DC erabakiarekin, Konstituzio Kontseiluaren aburuz, jatorri, arraza eta erlijioarengatik herritarren arteko bereizketa oro debekatzen duen berdintasun-printzipioak «*jatorri, kultura, **hizkuntza** edo sinesmen komunitate gisa definitzen den edozein talderi eskubide kolektiborik onartzea ukatzen du*²³».

Horrekin, Kontseiluak bereizketa debekatzen duten irizpide konstituzionalei hizkuntzaren irizpidea gehitzen die. Bereizketa hori debekatu zuten hizkuntza-komunitateei eskubide bereziak aitortzeko ikuspegitik. Arrazoi bide hori enplegu publikoetarako sarbidera heda daiteke, eta jurisprudentziaren arabera hizkuntza bat menperatzea hautagaien arteko bereizketa justifikatzen ez duen irizpide subjektibo bezala hartu behar da, eta ez, ordea, hautagaiak lortu nahi duen funtzioa betetzeko gaitasun handiagoa emango liokeen gaitasun objektibo bezala.

Uko egite horri beste iturri bat atzeman diezaiokegu, hain zuzen Frantziako Konstituzio Kontseiluak ukatu zuenean herritarren arteko bereizketarik egitea beren jatorri geografikoarengatik, horrek bide batez «*eskualde hobespena*» (préférence régionale) ezarriko zuelakoan. Ukatze hori 91-290 DC erabakian azaldua da, Korsikako populuaren aitortzari buruzkoa, non frantses populuaren osagai gisa hartzen den. Konstituzio Kontseiluak Korsikako populuari erreferentzia egitea zentsuratu zuen, frantses herritarren artean geografia edo etnia jatorri irizpidearengatik bereizketarik ezin onar daitekeela ebatziz²⁴. Hortik urrunago joanez, aditu batzuen iritziz, hizkuntzak geografia-jatorri edo etnia batekiko lotura egiten duenez, jatorri irizpidea dira eta beraz ezin dute herritarren arteko bereizketaren arrazoi izan²⁵.

Egoera horrek zailtasunak eragiten dizkio bertako zerbitzu publiko elebidunak ezartzeko langileria euskalduna behar duen hainbat erakunde publikori. Eta beharrak emendatuz joan dira, zenbait zerbitzuek (aisialdi-guneak, haurtzaindegia, eskolaz kanpoko jarduerak...) egindako eskaintza elebidunaren egituraketarekin. Horiek guztiak Euskararen Erakunde Publikoaren gainbegirada edo ikuskaritza izan dute. Zailtasun horiengatik, eta kudeaketa zentroen aholkuak segituz, herri zenbaitek euskararen menperatzea derrigorrezko baldintza bezala ez ezartzea erabaki dute langileen kontratazioetarako, baina horren ordez euskararen menperatzea estimatuko dela, alegia, puntu baikorra edo balioztatua dela zehazten dute. Zaila dirudi hortik harago joateak, Konstituzioaren eskaerak kontuan hartuz.

21 Frantziako Konstituzioaren 1. artikulua: «Frantzia Errepublika banaezin, laiko, demokratiko eta soziala da. Herritar guztiak berdina dira legearen aurrean, jatorri, arraza edo erlijio bereizketarik gabe».

22 Funtzionarioen eskubide eta betebeharrari buruzko 1983ko uztailaren 13ko 83-634 legearen 6. artikulua honela dio: «Ezin da funtzionarioen arteko bereizketa zuzen ala zeharkakorik egin, beren politika, sindikatu, filosofia edo erlijio iritzienegatik; beren jatorri, sexu norabide edo genero nortasunarengatik; beren adin, deitura, familia egoera, osasun egoera, itxura fisiko, ezintasunengatik; egiazki nola ustez etnia edo arraza batekoak izatea edo ez izateagatik».

23 Konstituzio Kontseiluaren 1996ko ekainaren 15eko 99-412 DC erabakia (Kons. 6).

24 Konstituzio Kontseiluaren 1991ko maiatzaren 5eko 91-290 DC erabakia (Kons. 11 – 14).

25 L. FAVOREU, *Droits et libertés fondamentales*; F. MELIN SOUCRAMANIEN, *Le principe d'égalité dans la jurisprudence du Conseil constitutionnel*.

- *Herritarrei begirako zerbitzu guztietako lanpostuen postu-fitxetan euskararen ezagutza balioztatuko da.*
- *Hautagaiek konpetentzia eta esperientzia bera dutelarik, euskararen ezagutza balioztatuko da.*
- *Herritarrekin harreman gehien duten zerbitzueta lanpostuek, bai eta haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesutan parte hartzen duten lanpostuek ere, lehentasuna dute lanpostuen profilak zehazteko garaian.*

Honako neurrien legezkotasunaz trenkatu baino lehen, «balioztatze»²⁶ terminoaz erreserba bat egin behar dela uste dugu. Balioztatze horrek ez du adierazi behar euskararen menperatzea postua eskuratzeko derrigorrezko irizpidea denik. Halere, hautagaiekin elkarriketak egiten direnean, euskararen menperatzea baikorki kontuan hartzen ahalko da hautagaien artean azken hautuaren egiteko. Postu-fitxetan zehaztu daiteke euskararen menperatzea elementu baikorra izanen dela hautagaiaren gaitasunen neurtzeko, baina derrigorrezko irizpidea, eta beraz diskriminatzailea, izan gabe. Interpretazio horrek, eta gaur egun indarrean diren praktikekin bat eginik, pentsaraz diezaguke bi neurriok indarrean den frantses zuzenbidearekin bat datozela.

Bestalde, postu profilak definitzerakoan, euskararen menperatzea profilaren elementu garrantzitsu bezala ager daiteke, baina hizkuntza menperatzearen irizpidea derrigorrezkoa izan gabe.

- *Herritarrekin harreman gehien duten zerbitzueta lanpostuek, bai eta haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesutan parte hartzen duten lanpostuek ere, lehentasuna dute langileen euskalduntze-planetan.*

Antolaketa-neurri horrek ez badu langileen formakuntzarako borondate-printzipioa urratzen, orduan frantses zuzenbidearekin bateragarria da.

- *Herriko etxeko atal guztietan langile euskaldunak egotea hobetsiko da euskarazko zirkuituak ahalbidetzeko.*
- *Langileen barne-mugikortasuna erraztuko da zirkuituak osatu ahal izateko.*

Bi neurri horiek zerbitzuen antolaketarekin dute zer ikustekorik. Langileek euskara hautuz erabiltzeko printzipioa errespetatzen bada, zirkuituen antolaketa eta zirkuitu horien ezartzeko antolaketa-neurrien hartzea indarrean den zuzenbidearekin bat datoz.

3.1.1.d. Herriko etxeak kanpo kontratazioetan, esleipenetan eta diru-laguntzetan, hizkuntza-irizpideak ezarriko ditu

Hizkuntza-irizpide nozioa kontzeptualki argitu behar da, indarrean den frantses zuzenbidearekin bat datorren neurtzeko. Irizpidea zerbait epaitzeko, neurtzeko edo zehazteko printzipio edo erreferentziatzeko elementu bezala definitzen da. Kasu honetara ekarri, hizkuntza-irizpide bat ezartzeak suposatuko luke euskara erabiltzeko edo menperatzeko beharmendua sartzeko dela herriko etxeak izan ditzakeen kontratupeko harremanetan edo diru-laguntza politiketan. Horrek erran nahiko luke kontratu bat edo dirulaguntza bat eskuratzeko baldintza bezala sartzeko dela.

Ikuspegi orokor batetik, beharmendu horrek legezko bi zailtasun nagusi dakartza:

- Kontratu edo dirulaguntza baten eskuratzeko euskararen erabilera edo menperatzea behartzeak, Konstituzio Kontseiluaren jurisprudentziarekin talka egiten du. Izan ere, Kontseilu horrek agindu baitu “eskualde hizkuntza” bateko hiztunek ezin dutela hizkuntza horren erabiltzeko eskubidea aldarrikatu, eta norbanakoei ezin zaiela “eskualde hizkuntza” baten erabilera ezarri²⁷.
- Kontratu edo deialdi publiko baten eskuratzeko euskararen erabilera edo menperatzea behartzeak Europar Batasuneko zuzenbidearekin talka egiten du. Europar Batasunak hautagaien arteko aukera-berdintasuna bermatzen baitu kontratuak izenpetzeko eta horren iritziz hautagaiak baztertze zeharkako diskriminazioa da²⁸.

²⁶ Frantsesez valorisation terminoaz ari gara.

²⁷ Konstituzio Kontseiluaren 1999ko ekainaren 15eko 99-412 DC erabakia (Kons. 8).

²⁸ Gai horrek zalaparta piztu zuen lurralde erakunde batzuek «Molière» izeneko klausulak ezarri nahi baitzituzten merkatu publiko bat

Ohar orokor horretan oinarriturik, aipatzen diren hizkuntza-irizpideen legezkotasuna neurtzeko bi kasu desberdin ikus ditzakegu:

- Irizpideok kontratua izenpetzeko edo dirulaguntza eskuratzeko sartzen dira, zerbitzu elebidun edo euskarazkoa emateko xedea ez duten jarduerentzat.

Kasu horretan, hizkuntza-irizpideak zuzenbidearen kontrakoak dira. Herriko etxeak beste modu batez joka lezake dirulaguntzaren edo kontratuaren eskuratzeko baldintzatuko lukeen hizkuntza-irizpiderik ezarri gabe, kanpoko eragileentzat elebitasuna sustatzeko neurriak ezarriz, herriko hizkuntza-politikara sentsibilizatuz edo komunikazio elebiduna ezar dezaten laguntzeko tresnak eskainiz. Halere, sustapen-ekintza horiek kontratupeko harremanetik edo dirulaguntza prozeduratik aparte egon behar dute, eta ez dute horien erdiestea baldintzatu behar.

- Irizpideok kontratua izenpetzeko edo dirulaguntza eskuratzeko sartzen dira, zerbitzu elebiduna edo euskarazkoa emateko xede zuzena duten jarduerentzat.

Horrelako kasuetan hizkuntza-irizpideen ezartzea onartzen da. Izatez, kontratuaren helburua izan daiteke herriko etxearen hizkuntza-behar baten betetzea. Izan daiteke euskara formakuntza ematea²⁹, komunikazio-kanpaina elebiduna egitea, kanpoko zerbitzu emaileekin eskolaldi inguruko edo aisialdi zerbitzu elebidunak segurtatzea... Kasu hauetan, hizkuntzaren erabiltzea kontratuaren ezinbesteko baldintza da, eta herriaren behar bat betetzen du. Kontratuaren helburua ez da hautagai batzuk baztertzea, baizik eta zerbitzu elebiduna ematea. Beraz, ezin daiteke diskriminaziorik argudiatu. Euskara menperatzen ez duen hautagai batek deialdi publikora aurkeztu nahi balu, adibidez itzulpen-lanak azpi-kontrata litzake edo itzulpen-zerbitzu batzuekin edo zerbitzu emaile euskaldunekin elkartu deialdi horren irabazteko. Gainera, hautagaiak beren borondatez deialdira aurkezten direnez, euskararen erabilpena ez da inolaz ere inposatzen. Beren borondatez deialdira aurkezten diren hautagaiei ez zaie euskararen erabilpena behartzen, baizik eta beren borondatez deialdira aurkezten dira.

Ondorioz, kanpoko zerbitzu emaileekin kontratuak egiterakoan edo dirulaguntza emateko, hizkuntza-irizpideak txertatzeko xedea duten neurrien legezkotasuna ikuspegi horretatik aztertu behar da.

- *Herriko etxeak bere zerbitzuak kanpo enpresei edo elkartei esleitzen dizkienean, enpresa horiek herriko etxearen hizkuntza-irizpide berak bete ditzaten bilatuko da.*
- *Zerbitzua euskaraz eskaintzen dutela egiaztatzen duen ziurtagiria duten kanpo-enpresak eta elkarteak balioztatuko dira.*
- *Dirulaguntza jaso duten proiektuek edo entitateek zerbitzua euskaraz emanen dute bai ahoz bai eta idatziz ere.*

Neurriok har litezke herriko etxe baten hizkuntza-behar baten betetzeko edo zerbitzu elebidun baten emateko, xede zuzena duten kontratu edo dirulaguntzen kasuan.

3.1.1.e. Sail/zerbitzu guztiek euskara plana segituko dute

Atal honetan ematen diren neurriek hizkuntza-politika irizpideei ihardesten diete, eta ez dute legezko zailtasun nagusirik agertzen, baldin eta euskara erabiltzeko printzipio nagusiak betetzen badira: hautuzko erabilera eta elebitasuna.

- *Herriko etxearentzat lan egiten duten enpresek plangintzako irizpideak beteko dituzte.*

Neurri horrek soilik balioko luke enpresak herriko etxearen hizkuntza-behar bat beteko balu, edo zerbitzu elebidun baten ezartzeko xedea duen kontratua izenpetuko balu.

egikaritzen zuten langileek (gehienetan obra langileak) beren lanean frantsesa menpera eta hitz egin zezaten. 2017ko apirilaren 27ko frantses ministerio instrukzio batek (lotura) klausula horiek zuzenbidearen kontraketatik ebatzi zituen, bai eta jurisprudentziak ere: Lyon-eko 2017ko abenduaren 13ko Administrazio Epaitegia. Hona [hemen lotura](#).

29 Horixe da 2017ko apirilaren 27ko ministerio instrukzioak ematen duen adibidea, hain zuzen, hizkuntza-klausulak baimentzeko salbuespena.

3.1.2. Komunikazio-jarduera euskaraz

Euskarazko komunikazioari buruzko zatiak bost atal ditu, eta bertan euskarazko komunikazioa bermatzeko neurriak jasotzen dira. Lehenago egin ditugun oharrek direla-eta, neurri horiek guztiak indarrean den zuzenbidearekin bat datoz, baldin eta honako bi baldintzak betetzen badira:

- Euskararen erabilerak frantsesarenaren osagarri izan behar du, frantsesak nahitaezkoa izaten segitzen baitu. Ondorioz, ahozko nola idatzizko komunikazio elebidunak egiteaz ari gara. Tes-tuinguru horretan, elebitasuna luze eta zabal onartua da komunikazio-euskarrietan (seinaletika, formularioak, irudi korporatiboa, dokumentu ofizialak, zigiluak, iragarkiak...), herriko etxeek finkatuko dituzten baldintzetan.
- Ahozko komunikazioetan, euskararen erabilpena baimendua da, baldin eta erabilera hori hautuzkoa bada eta langile nola erabiltzaileei ez bazaie inposatzen. Zerbitzu elebiduna bermatzeko antolaketa-neurriak (administrazio zirkuituak, zerbitzu elebidunak...) langile eta erabiltzaileen eus-kara erabiltzeko borondatea errespetatzen dela zaindu behar dute.
- Herriko etxearen ardurapean, zuzenean edo zeharka diren erakunde guzietan, komunikazio-irizpideak ezartzen dira:

Irizpide horiek soilik ezar daitezke herriko etxearen hizkuntza-beharren betetzeko edo zerbitzu elebidunak emateko xedea duten kanpoko zerbitzu emaileekiko harremanetan, eta kontratupeko harremanetan edo dirulaguntzen inguruan.

3.1.3. Euskaraz lan egitea

Euskara lanean erabiltzeko atalak hainbat neurri biltzen dituzten lau atalez osatua da. Neurriok bi multzotan sailka ditzakegu:

- Herriko etxeak euskara erabiliko du lan hizkuntza gisa
- Lana eta komunikazio ofiziala euskaraz egingen dira

Bi multzo horietan aurkezten diren neurriek ez dute legezko zailtasun berezirik agertzen, baldin eta “eskualde hizkuntzen” erabiltzeko baldintza orokorrak betetzen badira.

Honela, aurreikusten diren euskarazko komunikazioek frantsesaren osagarri gisa izan behar dute, frantsesak derrigorrezko izaten segitzen baitu. Horrek bereziki balio du barne komunikaziorako euskarrietan euskara erabiltzerakoan (zirkularrak, barne oharrek, administrazio prozedurak...).

Gainera, langileen artean euskararen erabilera sustatzeko neurriek erabilera horren hautuzko izaera errespetatu behar dute. Ondorioz, euskara-unitateak edo zirkuitu elebidunak soilik langileen nahiak errespetatuz antola daitezke.

Halaber, langileen barne mugikortasuna balioztatzeko neurriek ere langileen borondatea errespetatu behar dute. Lan harremanetan euskararen erabilera errazteko helburua duten baliabide edo euskarri egokiak (lexikoak, itzulpenak, terminologia datu baseak...) ezartzeak ez du legezko zailtasun berezirik ematen.

- *Langileek euskaraz lan egiteko maila egokia izanen dute eta langile euskaldunak kontratatuko dira*
- *Herriko etxeak 1.1.5. atalean zehazten denaren arabera osatuko du plangintza eta irizpide horiez gain, hauek ere zehaztuko ditu*

Herriko langileek hizkuntza-gaitasunak eskuratzeko, lehenago enplegu publikoen sarbiderako hizkuntza-gaitasunen balioztatzeaz aipatu printzipioak bete behar dira.

Herriko etxeak, postuen profilen arabera (B2, C1...) identifikatu diren langileen hizkuntza-gaitasunak lortzeko helburuak ezartzeko eskubidea du, baina maila horien menperatzea ezin zaie inolaz ere behartu. Ildo horretatik segituz, herriko etxeak hizkuntza-formakuntzak antolatu eta diruztatu nahi baditu, formakuntza horietara doa-

zen langileek borondatez egin behar dute, baita postu-profilak zerbitzu elebiduna emateko profil hobetsi bezala identifikatu direnean ere.

Honela, «euskalduntze» zerbitzuak edo bestelako arduradun batzuek har ditzaketen engaiamenduak ez dira ulertu behar zerbitzu horietan lan egiten duten langileentzako formakuntza horietara joateko beharmendu bezala. Beharmendua izatekotan, formakuntza horiek sustatu eta proposatzeko beharmenduaz ari gara, ez ordea formakuntzak behartzeaz. Formakuntza horien administrazio-antolaketaarako neurriek (egutegiak, epeak...) beti ere langileek formakuntza horien segitzeko duten borondatea errespetatu behar dute. Honela, planak eta estrategiak txertatzekotan, formakuntza horiek langileentzako hautuzkoak direla zaindu behar dute.

Herriko etxearen baitako harremanei buruzko neurrien atal hauek landu-eta, ikus ditzagun orain Protokoloak beste eskuhartze esparruetan aurreikusten dituen neurriak.

3.2. BESTE ESKUHARTZE ESPARRUAK

Eskuhartze esparru edo arloei buruzko ataleko neurriek hainbat zerbitzu edo jarduera hunkitzen dituzte. Halere, zerbitzu eta jarduera horiek herriko biziaren funtsezko elementuak izanik ere, ez dira zuzenki herriko etxearen ardurapean. Horri jarraikiz, herriko etxeak euskararen alde sentsibilizazio-ekintzak eta euskararen erabilera sustatzekoak ezar baditzake, herriko hizkuntza-politikaren baitan eta euskara sustatu eta babesteko duen esku-menarekin koherentzian, komeni du zehaztea zer baldintzatan ezar diezaiekeen kanpoko partaideei legezko hizkuntza-beharmendurik.

Hiru kasu bereiz ditzakegu:

- **Zerbitzu horiek kudeatze-egitura baten bidez edo herriko etxeari loturiko eta beregan-dik bereizia den pertsona moral baten bidez egiten direnean:** kasu horretan, zerbitzu horiek herriko etxeak hartu dituen engaiamendu politikoak bete behar badituzte, alegia, tokiko zerbitzu publikoa pertsonalitate morala duen entitate batek kudeatzen duenean, entitate horretako erabakiguneetan diren herriko ordezkariak zaindu behar dute entitateak euskararen erabileraren alde engaiatzen direla (adibidez, haurtzaindegia edo aisialdi-zentroek berezko pertsonalitate morala dute, baina herriak ditu osoki diruztatzen).
- **Kanpoko eragileek Protokoloak aurreikusi arloetan eskuhartzen dutenean, herriko etxearekiko independentzia osoarekin.** Kasu horretan ezin zaie euskararen erabilera behartu, adibidez hizkuntza-irizpideak ezarritik. Alabaina, herriko etxeak egitura horiek euskara beren jardueretan sartzeko laguntzeko sentsibilizazio- eta sustapen-ekintzak egin ditzake (adibidez, herriko kirol elkarteak, saltokiak, ofizialeak...).
- **Kanpoko operadoreek herriaren kontratuei ihardesten dietenean, euskarazko zerbitzuak hornitzeko** (komunikazioa, aisialdi eta eskolaldi inguruko jarduera elebidunak,...). Partaidetza horiek herriko etxearen hizkuntza-beharrei erantzuteko xedea badute (webgune elebiduna egitea, komunikazio kanpaina elebidunak, euskarazko aisialdi edo harrera zerbitzu baten ezartzea...), orduan herriko etxeak zerbitzu emailea euskara erabiltzera behartu dezake.

3.2.1. Hezkuntza

3.2.1.a. Hezkuntza formala: lehen haurtzarora, eta lehen eta bigarren mailako irakaskuntza

1. Herriko etxearen ardurapean dauden ikas zentro edo haur hezkuntzako harrera guneetan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatzen dira, eta horiez gain, honakoak hartuko ditu kontuan:

Haurtzaindegientzako ematen diren neurriek ez dute legezko zailtasunik, beti ere egituraren erabakiguneak prozesu horretan sartzeko prozedurak ezartzearen baldintzapean. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz emateko langile elebidunak kontratatzea ere aurreikus daiteke, baina kontratatze-faseetan hizkuntza-gaitasunen balioztatzeari buruz eman ditugun zehaztapenak kontuan hartuz.

2. Herriko etxeak murgiltze-ereduaren aldeko sustapen-lana egiteko erabakia hartuko du; eta horretarako baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

Hizkuntza-murgiltzearen alde eta murgiltzea sustatzearen alde erabakitzeak ez du berez arazorik ematen, hautu politikoa besterik ez da.

Elkarte gisa antolatu ikastetxe pribatuak euskarazko murgiltzea egiten dutenean, herriko etxearen laguntzak eska ditzakete, bereziki herriko forfeta. Baina, frantses estatuarekin elkarte-kontratu baten bidez lotuak direnean, herriak derrigorrez hartu behar ditu beren funtzionamendu gastuak³⁰.

Ikastetxe horien inbertsioetarako laguntzei dagokienez, hezkuntza kodeko (Code de l'éducation) L151-3 eta L151-4 artikuluek gogorki mugatzen dute ikastetxe pribatuei laguntzak ematea edo herriko lokalak eskura ezartzea. Pentsatuak diren laguntzek legezko beharmenduak bete behar dituzte. Bereziki, irakaskuntzarako lokalen eskura ezartzea posible da, baina merkatuaren prezioan alokatuz. Sostengu-neurri horiei lege-babes handiagoa emateko, 2014ko maiatzaren 6an Pirinio Atlantikoetako Prefekturak lurralde kolektibitateek irakaskuntza pribatuari eman diezaioketen laguntzen estatus juridikoaz egin duen interpretazio-zirkularrera jotzea komeni da³¹.

3.2.1.b. Hezkuntza formal: eskolaz kanpoko jarduerak

Atal honetan aurkezten diren neurriek ez dute indarrean den zuzenbidearekin bateragarritasun-eza erakusten, baldin eta lehenago aipatu baldintza orokorrak betetzen badira:

- Hizkuntza-irizpideak planifikatu eta txertatzeko neurriek ezin dute euskararen erabiltzeko beharmendurik eragin jardura horietan. Ondorioz, euskarazko jarduerak ezartzekotan, zerbitzu emalearen eta ikasleen borondatea errespetatu behar da.
- Herriko etxearen ardurapekoak ez diren zentroei dagokienez, ezin zaie hizkuntza-irizpiderik ezarri. Halere, euskaraz jarduten duten eragileen sustatzeko edo besteak euskarazko eskaintza egitera akuilatzeko laguntza bereziak pentsa daitezke.

3.2.1.c. Hezkuntza ez-formala: aisialdi-zentroak, kirol-elkarte eta -federazioak

Aurreko oharra kontuan harturik, neurri hauek ez dute legezko zailtasun berezirik agertzen. Haatik, herriko etxearen ardurapekoak ez diren eragile batzuei buruzko neurri zenbait baztertu behar dira:

- Ezin zaie eragile horiei euskara erabiltzea exijitu, bereziki laguntza edo dirulaguntzak horretara baldintzatuz edo hizkuntza-irizpideak txertatuz.
- Halere, herriko etxeak partaidetza-uraspide bat abia dezake eragile horiek euskara gehiago erabil dezaten, eta horretarako tresnak edo diru laguntzak ezarri, kudeatzen dituzten jardueretan euskararen erabilera gara dezaten.

3.2.1.d. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea

Atal honetan jasotzen diren neurriak euskararen erabilpena sustatu eta babesteko gaitasunarekin bat datoz, eta beraz, ez dute legezko zailtasun nagusirik agertzen.

3.2.2. Arlo sozioekonomikoa

1. Herriko etxeak eremu sozioekonomikoan urratsak egiteko diru bidezkoak ez diren bideak baliatuko ditu:

Azpi-atal honetako neurriek ohar berezia merezi dute.

- Herriko etxea bezero edo kontsumitzailea denean, idatziz zein ahoz, euskarazko zerbitzua eta arreta eskatuko du, bai eta euskarazko euskarriak ere.
- Kontratazio-mota guztietan hizkuntzaren kudeaketari buruzko aipamenak eta irizpideak txertatuko dira.
- Herriko paisaiari lotutako publizitate- eta informazio-euskarriek hizkuntza-irizpideak izanen dituzte, RLP/TPA (Règlement Local Publicitaire/Tokiko Publizitate Araudia) baten baitan adibidez.

Neurri horiek herriarekiko harremanetan pertsona pribatuei euskara erabiltzea ezartzen dietenez, indarrean den zuzenbidetik kanpo gelditzen dira. Ezinezkoa da, beraz, RLP/TPArentzat afitxatze elebitasunaren aldeko araua ezartzea, edo herriko etxeak kanpoko eragileekin dituen kontratupeko edo merkataritza harremanetan komunikazio elebidunaren printzipioa finkatzea.

30 Frantziako hezkuntza kodeko L442-5 artikulua: «kontratupeko klaseen funtzionamendu gastuak irakaskuntza publikoko klaseei hartzen zaizkien baldintza beretan hartzen dira».

31 Zirkularra ondorengo [lotura honetan](#) irakur daiteke.

Halere, herriko etxeak partaidetza-urraspide bat abia dezake iragarle horiek euskara gehiago erabil dezaten, eta horretarako tresnak edo dirulaguntzak ezarri, egiten dituzten komunikazioetan euskararen erabilera gara dezaten. Ez-ohiko gisa, herriko etxeak euskara erabil dadila eskatzeko eskubidea du, kontratupeko harremanaren zioa herriaren hizkuntza-behar bati badagokio (herrian komunikazio-kanpaina elebiduna ezartzea, euskarazko zerbitzua ematea...).

2. Herriko etxeak eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko sustapen politika garatzeko erabakia hartuko du eta behar diren baliabideak eta aurrekontua ezarriko ditu:

Sustapen-urraspide batean kokatzen direnez, azpi-atal honetako neurriek ez dute legezko zailtasun berezirik agertzen, baldin eta herriko etxeko partaideak borondatez sartzen badira herriko etxeak bideratu dituen sustapen-urraspideetan.

3.2.3. Hedabideak eta teknologia berriak

Atal honetako neurriek ez dute legezko zailtasun nagusirik agertzen, izan hedabideen sailean nola teknologia berrienean.

Herriko etxeko ordenagailuetan programa elebidunak ezartzeari dagokionez, herriko etxearen aburuz kontratu horiek hizkuntza-behar bati erantzuten badiote, hornikuntza-kontratuetan herriko etxeak eska dezake programa horiek euskaraz ere egotea, baldin eta merkatua halako programak hornitzeko gai bada.

3.2.4. Onomastika

Atal honetako neurriak herriaren hizkuntza-praktikan kokatzen dira, eta indarrean den zuzenbidearekin bat egiten dute frantsesaren erabileraren osagarri izanez gero.

Izen eta deituretan euskal grafia sustatzeko neurriek 1999ko maiatzaren 11ko frantses egoera zibileko instrukzio orokorrak proposatu arauekin bat etorri behar dute. Izenak erregistratzerakoan, instrukzio horrek behartzen du frantses hizkuntzan ohikoak diren alfabeto latineko ikur diakritikoak erabiltzea.

3.2.5. Kultura

Atal honetako neurriek kultur eskaintzaren antolatzeak hautu politikoekin dute zer ikusirik, eta ez dute legezko zailtasun nagusirik agertzen. Halere, neurri zehatz batek interpretazio zehaztasuna merezi du:

- *Zuzenean edo zeharka dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek antolatzen dituzten erakusketetan euskararen presentzia ziurtatu beharko da.*

Neurri hori ez da ulertu behar euskararen erabilerak dirulaguntzaren eskuratzea derrigorrez baldintzatuko balu bezala. Halere, herriko etxeak bere eremuan erakusketa edo ekitaldiak antolatuko dituzten kultur egiturekin partaidetza-lana egin dezake erakusketa-euskarrien euskarazko bertsioak egiteko (liburuxkak, obren azalpenak, erakusketaren aurkezpena...).

Izenburua:

Hizkuntza
Eskubideak
Bermatzeko
Protokoloa:
Garapena Herriko
Etxeetan
*Hendaiako
Herriko Etxearen
Hizkuntza Politika:
diagnostikoa,
ekarpenak eta
gomendioak*

Egilea:

Euskalgintzaren Kontseilua

Argitaratze-data:

2022ko uztaila

Oharra:

argitalpen honetako eduki
guztien egile eskubideak
erreserbatuta daude;

© Euskalgintzaren
Kontseilua

© Hendaiako Herriko Etxea

